



 MARTXOAREN 8A

"Nire lana eta figura
hurrengo belaunaldientzat
erreferente izan dadin
ahaleginduko naiz"

Vega Asensio biologian doktorea da eta ilustrazio
zientifikoaren munduan dabil hainbat urtean.
Aitzindaria izan da alor horretako
masterra sortzen. / 14-15

THE BADASS PROJECT

ERREPORTAJEA

"Lan-karga handitu
egin da eta zailagoa da
lanaren eta kanpoko
bizitzaren arteko
orekari eustea" / 2-3



Ainhoa Albizuri medikua.

KIROLA

Garaiko
duatloiak 14
talde eta 60
kirolari batuko
ditu zapatuan

Probak 15:00etan hasiko dira
eta gizonezkoen kategorian,
emakumeenean, kategoria
mistoan, Open kategorian eta
kadeteenean lehiatuko dira / 11



Korrikalariak Garaiko kaleetan, taldekako duatloian.

25. URTEURRENA

ANBOTOk diseinu
berria dakar,
25. urteurren
ospakizunagaz
hasteko / 12



ANBOTO

"Greba egitea asko kostatzen zaigu, baina beharrezkoa da duintasunez lan egiteko"

AINHOA ALBIZURI LARRIALDIETAKO MEDIKUA

Medikuen grebak lehenengo astea bete du otsailean. Hurrengo hileetarako ere, astebeteko deialdiak egin dituzte estatutu propioa exijitzeko

Goiena ERREPORTAJEA

Debagoieneko Ospitalean larraldietako medikua da Ainhoa Albizuri iurretarra (Iurreta, 1972). Bera ere Osakidetza eta Osasunbideko medikuek otsailetik ekainera bitartean deitutako astebeteko grebetara batuko da, Espainiako Estatuko Ministerioari estatutu propioa eskatzeko. Otsailaren 16an izan zen lehenengo greba eguna, eta, CEMS Medikuen Sindikatuak deituta, manifestazioa egin zuten Donostian.

Zer da eta zer jasotzen du estatutuak? Zergatik ikusten duzue estatutu propio baten beharra?

Estatutuak lan baldintza minimo batzuk ezartzen ditu eta ezin dira aldatu; adibidez, urteko lanordua kopurua, jaieguna eta halako kontuak definitzen ditu, eta horiek ez ditugu aldatu gura. Kontua da medikuen lan eta ardura batzuk beste langile batzuekiko desberdinak direla, eta horregatik eskatzen dugu estatutu propioa. Geure kasuak dituen lan bere-

zitasun horiek kontuan hartzeko eta horiei buruz berba egiteko.

Zeintzuk dira gaur egungo estatutuen arazoak?

"Gure erabakien maila, formakuntza eta lan baldintzen berezitasunak ez dira kontuan hartzen"

Gure erabakien maila, gure formakuntza eta gure lan baldintzen berezitasunak ez dira kontuan hartzen. Medikuek, langile-maila guztien artean, talde minoritarioa gara, eta beste langileek erabakitzen dute guk zelan lan egin behar dugun. Hori aldatu gura dugu.

Greba mugagabearen aukera mahai gainean egon arren, oraingo astebeteko grebetara deitu duzue, ekainera arte. Zergatik?

Pertsonekin lan egiten dugu, haiei zor diegu gure lana. Horrek, oster, ez du esan gura geure burua zaindu behar ez dugunik. Greba egitea asko kostatzen zaigu, egun batean lanik egiten ez badugu lan hori pilatu egiten delako, eta, horregatik, erabaki orokor hori hartu dugu. Horrela, geure lana aurrera eramaten jarraitu ahalko dugu.

Grebara jotzea azken aukera izan ohi da. Zuen kasuan ere bai, ezta?

Bai, hala da. Guk ez dugu grebarik gura, geure lana duintasunez eta ahalik eta ondoen egitea baino. Gure eskaera eta arazoak norbaitek entzun eta horiei konponbide bat topatzea gura genuke. Baina hori ezinez-



Ainhoa Albizuri, Arrasateko ospitalean. GOIENA

Medikuek lan baldintza justuen eta osasun-sistema indartsuago baten aldeko borroka abiatu dute

EGOERA OROKORRA

Gainkarga eta ordezkaritza falta Medikuen lan-estresa eta nekea pilatu egin dira eta beraien berezitasunak defendatzeko negoziazio eremu propio baten beharra dagoela diote.

ALDARRIKAPEN NAGUSIAK



A+ taldea mediku eta goi-mailako tituludunentzat.



35 orduetik gorako lana borondatezkoa izatea, ondo ordaindua eta atsedenaekin.



Guardien muga 17 ordu jarraituan, eta lokalizatutako guardiak ere lan-denboratza hartzea.



Txanden nekagarritasuna aitortzea, bereziki gaueko eta jaiegunetako lanaren eragina kontuan hartuz.



Negoiazio-mahai propioa medikuentzat, independentea.



Lanbidearen arriskua aitortzea, Gizarte Segurantzako araubide berezi batean sartzeko.



Erretiro aurreratua ahalbidetzea, erosahalmena galdu gabe eta aparteko lanaldia %100 zenbatuta.



LEPak oro har merezimendu-lehiaketa bidez egitea.



Aparteko ordainsari osoak: soldata osoa, hirurtekoak eta osagarriak barne.



Irakaskuntza-osagarria BAMEak prestatzen dituzten fakultatiboentzat.

INFORMAZIO ITURRIA:
EUSKADIKO MEDIKUEK SINDIKATUA



koa da horretarako borondaterik ez badago. Oraingo, astebeteko grebarekin hasiko gara, eta, jasotzen dugun erantzunaren arabera, jokabidea aldatu ala ez erabakiko dugu.

Greba deialdia iragarri ostean sumatu al duzue aurrerapausorik administrazioen aldetik?

Ni langile bat naiz eta ez dakit zerbait mugitu den ala ez. Guri heldu zaigunaren arabera, arazo guztiak gure gainean ipintzen dituzte. Ministerioak dio mahai-ko sindikatuarekin akordioa lortu dutela, baina, esan bezala, medikuak gutxiengo bat gara. Horregatik, denok bozkatu arren, CEMS Medikuen Sindikatua-arentzat oso zaila da mahai horretan gure lan arazoen inguruan negoziatzeara.

Egoera aldatu ezean, zein da zuen kezka nagusia?

"Medikuen eta fakultatiboen falta orokorra dago, eta gure mugen gainetik lan egiten dugu"

Lan baldintzak okerrera joatea. Lan-karga handitu egin da eta zailagoa da lanaren eta kanpoko bizitzaren arteko orekari eustea. **Grebaren astebeteko epealdietan zer zerbitzu minimo bermatuko dituzue?**

Zerbitzu minimoak bermatuta daude. Urgentziak egongo dira, anbulatorioetan ere zerbitzu minimoak egongo dira. Ezinbesteko kontsulta guztiak bermatuko dira. **Gaia aldatuz, pertsonal faltaz ere kexatu izan zarete; nola dago egoera zure kasuan, Debagoieneko Ospitalean?**

Mediku falta ez da Arrasateko kontua bakarrik. Medikuen eta fakultatiboen falta orokorra dago, eta gure mugen gainetik lan egiten dugu. Anbulatorio batean bost mediku behar diren tokian hiru badaude, lan-karga handitu egin da.

Egoera horretan, larrialdietako mediku gisa, zerk motibatzen zaitu lanean jarraitzea? Zerk motibatzen zaitu aurrera egitera?

Mediku guztiok maite dugu gure ogibidea, horregatik egin ginen mediku. Pertsonak zaindu behar ditugu eta horrek motibatzen gaitu lanean jarraitzeko.



Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp kanaleko kide?

Durangaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp kanalera



Eskaneatu QR kodea

* Izan zaituz berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak



"Durango Beroki sareko abiapuntua izango da, esperientzia pilotua zelanbait"

AINHOA ABENDAÑO SANCHEZ ELLACURIA FUNDAZIOKO TEKNIKARIA

Ekaitz Herrera DURANGO

Elkartasun proiektu berria jaio da Durangon: Beroki sarea. Migratzaileei eta errefuxiatuei harreraren laguntzeko sarea da, enpresak eta profesionalak inplikatzaren dituen. Boluntarioek ordu biko konpromisoa hartzen dute hilero, heldu berriei lana, esperientzia eta arreta eskaintzeko. Ellacuria Fundazioa dago egitasmoaren atzean, eta Ainhoa Abendaño gizarte hezitzaile getxoxtarra da bultzatzaileetarikoa bat.

Beroki sarea sortuko duzue Durangon. Zer da sare hori?

Elkartasun sare bat osatu gura dugu eta Durango sare horretako abiapuntua izango da. Proiektua esperientzia pilotu modura ulertu daiteke, Durango izango delako Euskal Herriko lehenengo herria Beroki sarean. Eta zergaitik hasi garen Durangon? Ba, hemen pertsona migranteekin lan egiten genuelako lehenagotik, eta, beraz, sare bat daukagulako dagoeneko eta herria bera ezagutzen dugulako. **Zelan funtzionatuko du?**

Ikusten genuen pertsona askok kezka bera partekatzen zutela: boluntariotza lanetarako astirik izan ez arren, prest zeudela euren lantokietan, arlo profesionalan, laguntzeko. Adibidez, fisioterapeuta batek komentatu zigun ez zeukala boluntariotza lanetarako astirik, baina prest egon zitekeela etorri berriei zerbitzuren bat eskaintzeko. Era berean, beste batek komentatu



Ainhoa Abendaño Sanchez. ELLACURIA FUNDAZIOA

zigun etxe-aldaketetan trasteak ekarri eta eramateko enpresa batean lan egiten duela eta prest zegoela migranteei etxe batetik besterako lekualdatzeren bategaz laguntzeko. Azken finean, sareak gizarte integrazioa eta komunitatea bultzatzen lagundu dezake. Bestalde, honako datu hau argitu gura dut: guk lehendik ezagutzen ditugu pertsona migrante horiek, gure herri eta auzoetako prozesuetatik ezagutzen ditugu. Ez dira ezezagunak guretzat.

Zein pauso emango duzue aurrerantz?

Orain, proiektua gizarteratzen gabilta. Honen berri ematen gabilta han-hemenka, atea jotzen, jendeari sare honen parte izan daitekeela erakusten. Izan ere, honen guztiaren helburua sare bat sortzea da, gizarteratzea modu honetan uler-

tzen dutenentzako sarea egitea. Politika egiteko modu bat dela uste dugu. Telebistan agertzen diren migrazio diskurtsoen aurrean, gure herrietan beste modu batera antolatu gaitezkeela uste dugu, ekintza zehatzak egin ditzakegula. Proiektu hau horixe da, hain zuzen ere: ekintza konkretu bat. "Zer egin dezaket nik arlo honetan?". Berokik horretarako aukera eskaintzen du. Hilean ordu biko konpromisoa hartuta, zeozer konkretua egin dezakezu.

"Telebistako diskurtsoen aurrean, herrietan beste era batera antolatu gaitezke"

Zer esaten dizute migranteek eurrek?

Guk hau martxan ipini badugu, haiek baliagarritzat jo dutelako da. Esperientziak erakutsi digu asko eskertzen dituztela halako egitasmoak. "Ez nekien halakorik zegoenik", esaten digute batzuek, "proiektu hau egongo ez balitz, nekez etorriko nintzatekeen leku honetara", beste batzuek. Igarri dugu etorri berri batzuek gizartearen parte hartu gura dutela, eta zerbitzua jaso duten asko esker oneko agertu direla.

Eta zer esaten dizute profesionalak edo boluntario lan hori egiten dutenek?

Parte hartzeko modu bat dela, laguntza eskaintzeko modu bat. Beharbada ez daude elkartetan, edo ez dute ikastaroak ematen parte hartzen. Bakoitzak bere lanbidetik abiatuta ematen du laguntza, ahal duen moduan.

Baten batek sarera batu gura badu, zer egin behar du?

Nahikoa du gugaz hartu-emanetan ipintzea eta gure web orrira jotzea (www.beroki.org). Han gure telefonoa eta helbide elektronikoa aurkituko ditu. Bakoitzak zertan parte gura duen adierazita, horren arabera antolatu gaitezke. Eta udan, oporretan, edo dena delako egoeran laguntza hori eman ezin bada, daudela lasai, berba egitea da kontua. Lehenago esan dudana moduan, abiapuntuan gaude, ez da egitasmo erraldoia. Apurka-apurka joango gara handitzen. Horixe izan da Durango aukeratzeko beste arrazoi bat. Ez da herri txikia, ez handia. Mugimendu handia dago, badago merkataritza. Eta jendeak elkar ezagutzen du. Beraz, ahalegindu gaitezen elkarregaz eragiten, denon artean emango diogu forma honi.

Durangaldeko Ikamak bat egin du Martxoaren 3ko ekitaldiekin

E.H. DURANGO

Martxoaren 3an 50 urte beteko dira polizia frankistak Gasteizko Zaramaga auzoan bost langile hil eta beste ehunka zauritu zituenetik. Hori dela eta, Durangaldeko Ikamak autobusak ipiniko ditu egun horretan Gasteizko oroimen ekitaldieta- ra joateko. Durangotik irtengo dira, 10:00etan. Bueltaoak 16:00etan irtengo dira Arabako hiriburutik. Ikamak azaldu duenez, Gasteizko sarraskitik 50 urtera gaur egungo ikasleei dagokie "lan eta bizi baldintzen alde lanean jarraitzea eta errepresioa salatzea", baita "gertatutakoak belaunaldi berriekin gogora ekartzea" ere.

Durango Truke Azoka martxoaren 13an, Andra Marian

E.H. DURANGO

Durango Udalak truke azoka antolatu du objektuen berberabilerara eta ekonomia zirkularra bultzatzeko. Egitasmoa martxoaren 13an egingo dute, Andra Marian, 16:30etik 19:00etara. Parte hartu gura dutenek ikastetxeetan entregatu behar- ko dituzte objektuak, martxoaren 9tik 11ra.

Udalak iragarri du jostailuak, liburuak, arropa, apaingarriak, musika-tresnak eta tresna teknologikoak onartuko dituztela, betiere hondatuta ez badaude. Ez dute etxetresna elektrikorik, mugikorrik, tabletik, smartwatcherik edo entziklopediarik jasoko.

Erosketak baino askoz gehiago Dendak Bai Festen, asteburuan

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango merkataritzak, ostalaritzak eta zerbitzuek hizordua garrantzitsua dute asteburuan. Dendak Bai Fest ekitaldiaren beste edizio bat antolatu du. Landako Gunean izango da, otsailaren 27tik (barikua) martxoaren 1era arte (domeka). Bertara doazenez ohikoa baino

prezio merkeagoan eskuratu ahal izango dituzte arropak, lurrinak, osagarriak eta abar, eta gastro gune batez gozatze- ko aukera ere izango dute. Gainera, publiko orokorrari begirako tailerrak antolatu dituzte. Halaber, familiek txiki- parka izango dute zabalik, baita jolas libreko gunea ere. Dendak Baik 100 euroko hiru

Durango Oparitu txartel zotz egingo ditu erosleen artean. Erosketek otsailaren 19tik martxoaren 1era bitartean eginda- koak izan beharko dute, eta azokako bertako edo estable- zimenduetako tiketek balioko dute. Parte hartzaileek kartele- tan aurkituko duten QR kodea eskaneatu beharko dute eros- keta-tiketa eta datuak bertan ipintzeko. Aurtengo edizioak ere Durango Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren babesa du.



Postu bat, iaz, Dendak Bai Fest azokan.

Indarkeria digitala aztertzeko saioa
Zugazan, 'Adolescence' telesailagaz

Ekaitz Herrera DURANGO
Andereak elkarteak matxismoa-
ren eta indarkeria digitalaren
gaia aztertuko du Zine Forum
Feminista batean. Britainia
Handiko telesail bat ardatz har-
tuko dute horretarako: *Adoles-
cence* (Nerabezaroa). Kontakizu-
nean ageri direnak genero-albo-
rapenetan eta ziberindarkeria
matxistetan aditua den Estibaliz
Linaresegaz aletuko dituzte.
Elkarteak beharrezkotzat jo du
gaia lantzea, errealtate horiek
gazteei "geroago eta gehiago"
eragiten dietelakoan: "Jazarpen
digitala, kosifikazioa, gorroto
diskurtsoak" eta foroetan zein
sare sozialetan nerabeei zuzen-
duriko "jarrera matxistak" ai-

patu dituzte ezaugarrien artean.
"Elkarrizketarako gune bat sor-
tu gura dugu, non gurasoek,
irakasleek eta gazteek indarke-
ria horiek ezagutu, haien iris-
mena definitu eta kolektiboki
zelan aurre egin pentsatu ahal
izango duten", azaldu du Ande-
reak elkarteak.

Doako sarrera
Zine Forum Feminista martxoaren
14an izango da, zapatuagaz,
Zugaza zineman. Saio bi izango
ditu, goizean 11:00etatik 14:00eta-
ra, eta arratsaldean 16:00etatik
18:00etara. Sarrera doakoa da.
Txartelak proiektzio egunean
bertan jaso behar dira, 10:30etik
aurrera, leihatilan.

Itaiak manifestazioa
egingo du Martxoaren
8an, Durangon

E.H. DURANGO
Itaiak Euskal Herriko hainbat
txokotan egingo ditu Martxoaren
8ko mobilizazioak, eta Durangon
egingo du, hain zuzen ere, es-
kualdeko manifestazioa. Antola-
kundearen berbetan, "emakume
langileen zapalkuntza mantendu
egin da, eta faxismoaren eta ma-
txismoaren zabalpenak horretan
sakondu du azken urteetan". Hori

dela eta, Itaiak "beharrezkoa"
deritzo "emakume langileen in-
teresak defendatuko dituen pro-
posamen iraultzaile bat eraiki-
tzeari". Durangoko manifestazioa
martxoaren 8an izango da,
13:00etan, Santa Anatik hasita.
Halaber, Euskal Herriko Itaiak
bere lehenengo kongresua egin
du orain gutxi, eta egunotan
horri buruzko azalpenak eman
dituzte Elorrioren eta Durangon.
"Emakume langileon askapene-
rako erronkez aritu gara eta gure
proposamena azaldu dugu", zehaz-
tu dute.

Adinekoen zentro berria, aparkalekuak
eta kirolgunea, Durangoko inbertsioetan

Udalak aurtengo aurrekontuak onartu ditu. 45,5 milioi euroko plana, guztira

Ekaitz Herrera DURANGO
Durangoko udalbatzak aurre-
kontuak onartu ditu asteon,
EAJren, PSE-EEren eta PPren
aldeko botoekin. EH Bilduk eta
Herriaren Eskubideak kontra
bozkatu dute. Udalak 45,5 milioi
eurogaz kudeatuko du 2026a, iaz
baino %5,7 aurrekontu handia-
goagaz, eta "eraldaketa sakon
eta iraunkor baterako oinarriak"
ipini gura ditu aurrerantzean.
Inbertsio nagusien artean,
honako proiektu hauek jaso di-
tuzte, besteak beste: garai bate-
ko Udal Euskaltegian —Saibi
kaleko eraikinean— adinekoen
zentro berria atondu ahal izate-
ko prozesua hastea, Tabirako
kirolgunea goitik behera berriz-
tea, Antso Estegiz kaleko bigarren
zatia berriztea, etxebizitza plana
garatzea, bizikletentzako sarea
handitzea eta aparkalekuak egi-
tea, Arte eta Historia Museoa-
ren 40. urteurreneko ekitaldiak an-
tolatzea, indarkeria matxistaren
biktimentzako aholkularitza
zerbitzua ipintzea, eta dokumen-
tal bat sortzea migranteekiko
aurreiritziak apurtzeko. Parte
hartze bidezko aurrekontuei
dagokienez, udalak 600.000 eu-
roko diru atala gorde du. Fun-



Eguazteneko osoko bilkura.

tsean, "pertsonek ardatz dituzten
politika publikoak indartzeko"
erabili gura dituzte proiektuok.

Kontrako botoak
Oposizioko alderdi nagusiek
—EH Bilduk eta Herriaren Es-
kubideak— zuzenketak aurkez-
tu dizkiote gobernu taldearen
proposamenari. Subiranistek
hamazortzi aurkeztu dituzte,
etxebizitzaren auziari aurre egi-
teko asmoz gehienak. Eta talde
independenteak hamaika; tartean,
psikobonuak adin tarte guztie-
tara zabaltzea eta umeen gara-

penerako tratamenduak finan-
tztatzea eskatzeko. Hala ere,
gobernu taldeko kideek atzera
bota zituzten bataren eta bestea-
ren proposamenak. Hori horre-
la, EH Bilduko Iker Urkizak
EAJren jarrera kritikatu zuen,
aurrekontuak PPgaz "adostu"
dituela leporatuta. Koalizio su-
biranistak etxebizitza bulegoa
sortzea, etxebizitza hutsak be-
rrizteko diru laguntzak sortzea,
San Agustino ospitale zahar-
rean etxebizitza dotazionalak egi-
tea eta udalaren jabetzako etxebi-
zitza parkea handitzea gura zuen,
baina proposamenek ez zuten
argirik ikusi. Herriaren Esku-
bideko Jorge Varelak aurrekon-
tuak "etsigarriak eta zoritxarre-
koak" zirela adierazi zuen, "mu-
rrizketak" dakartzala politika
sozialean, eta otsailean onartu
direla-eta "berandu" datozela.
PPko Carlos Garcia pozik azal-
du zen aurrekontuekin, bere
proposamenetariko batzuek isla
ikusi dutelako bertan. Besteak
beste, udal autobusa ipintzeko
ideiak. "Faseka" garatu gura du
proiektu hori eta udan eman
gura du lehenengo pausoa, Ta-
birako igerilekuetarako joan-eto-
rria egiteko autobusagaz.

OSTALARITZA gida.

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu
688 731 402 zenbakira

XIBERU

Xiberu Taberna

xiberutaberna

Zezilia Gallartzagaitia, 9 ZORNOTZA
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea
ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai
eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

GAUARGI

gauargitaberna

Dantzari, 4 behea IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan
mollete eta errazioak. Domeketan rabak
eta askotariko errazioak.

OLAJAUREGI

Hotel Olajauregi

hotel_olajauregi_jatetxea

Kurutziaga, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864
Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30).
Eguneko menua 19,90 / Dastatzeko
menua 45 / Karta / Mokadu karta.
Gauetan ostegunetik larunbatera (20:00-22:30).
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

IBAIZABAL

Ibaizabal taldea, 2B DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.
Ostiraletan pintxopotea!

24.korrika *æk*
**Euskara
gara**

Badator Korrika!

aurten... berri berezi bat dugu!

Egon ADI
gure sare sozialetara!

ANBOTOKIDE

Durangoko Udalak eta Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu dute merkatua dinamizatzeko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu dute herriko merkatu plaza biziberritzeko. Datozen hamabi hileetan, askotariko ekintzak antolatu gura dituzte bertan, merkatua "salmenta gune iza-
tetik herritarren elkargune iza-
tera igarotzeko" eta "erreferen-
tzialtasuna irabazteko". Hori horrela, udalak eta Eusko Jaur-
laritzak dastatzeak, produktuen
aurkezpenak, umeentzako eta
gazteentzako sukaldaritza taile-
rrak, hezkuntza-errezetak, kul-
tur ekitaldiak eta artisautza
saioak antolatuko dituzte mer-
katuan bertan. Batak eta besteak
berrogeina mila euro ipini di-
tuzte ekintzok antolatzeke, 80.000
euro, guztira.

Mireia Elkoroiribe alkateak nabarmendu duenez, "aliantza estrategikoa" da udalak eta Eusko Jaurlaritzak adostu dutena, "merkatua urte osoan zehar

biziaraztea" ekarriko duena. "Jendea erakarri gura dugu, eta garai bateko erreferentzialtasuna berreskuratu", gaineratu du alkateak. Halaber, programak zapatueta merkatuari, base-
rritarren azokari, eragingo dio-
la ere argitu du. Raimundo Ruiz
de Escudero HAZI fundazioko

zuzendariak ere ildo beretik berba egin du. Merkatuek so-
zializazioan jokatzeko duten rola
goraipatu du, eta azpimarratu
du Durangoko Udalaren akor-
dioak leihatu berri bat zabalduko
duela "jasangarritasunerako"
eta lehen sektoreko beharginen
"duintasuna" bultzatzeko.



Udaleko, HAZIko eta Durangoko dendetako ordezkariak, martitzeneko agerraldian.

Lapurretek behera egin dute Durangon, eta borrokek, oster, gora

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak eta Udaltzain-
goak 2025eko segurtasun balan-
tzea aurkeztu dute. Josune Es-
cota segurtasun zinegotziak eta
Amaia Frontaura udaltzainbu-
ruak esan dute txostenak "ar-
gi-ilunak" erakusten dituela. Izan
ere, delitu batzuetan beherakada
"esanguratsua" igarri arren, "pre-
bentzioa indartzeko beharra"
sumatu dute beste hainbatetan.
Lapurretek eta iruzurrek %10
eta %28 behera egin dute hurre-
nez hurren, 2024tik 2025era. Bai-
na borroken ondoriozko lesio
parteak bikoiztu egin ziren, 19
izatek 40 izatera. Josune Esco-
tak azaldu duenez, igoera hori
udaltzaingoaren "lan proaktibo-
ari" zor zaio, lehen Ertzaintzak
izapidetzen zituzten kasu asko
orain tokiko polizia egiten di-
tuelako. Atxiloketa kopuruan
ere igarri dute aldaketa hori: 6
izan ziren 2024an, eta 31 iaz.

Bestalde, udalak "delitu joera
berriak" identifikatu ditu: jabetza
lagapenei edo usurpazioei lotu-

rikoak. 2024an ez zuten halako
kasurik erregistratu, baina iaz
16 izan ziren. Trafikoari dago-
kionez, istripu kopurua jaitsi
egin den arren, biktima-
dun istripuek gora egin dute. Bestalde,
patinete elektrikoak eta bizikle-
tak ere kezka iturri dira, horie-
kin loturiko gertakariak ia bi-
koiztu egin direlako.



Durangoko Ermodo kalea.

Koba metal jaialdia Abadiñotik Durangora lekualdatuko dute



Ehun Kilo taldea, iaz, festibalean.

A.M. DURANGO

Koba musika jaialdiaren edizio
berria Durangon egingo dute,
Abadiñon egin beharrean. Ho-
nela jakinarazi dute antolatzaile-
ek: "Durangoko Udalak ilusioz
hartu du Kobaren etorrera, eta
lanean gabilta jaialdi on bat
antolatzeke, ekitaldiak beti es-
kaini dituen kalitatea eta segur-
tasuna mantentzeko". Data ere
zehaztu dute; maiatzaren 16an
egingo dute festibala. Baina orain-
goz ez dute kartelari, edukiari
eta sarreraren salmentari buruzko
xehetasunik eman. "Datozen as-
teetan" jakinaraziko dute dena.



Artxiboko irudi bat.

Zornotzako enpresa batean lapurtzea egotzita, gizon bat kartzelaratu dute

A. M. ZORNOTZA

Ertzaintzak 32 eta 19 urteko gizon bi atxilotu zituen Zornotzako enpresa batean indarra erabilia lapurreta egitea egotzita. Lapurretan enpresako taloitegiak eta ia 900.000 euroko zor-agiriak hartu zituzten. Gizon biek aurrekari penalak zituzten enpresetan lapurretan egiteagaitik edo lapurretan egiten saiatzeagaitik, eta epaileak 32 urteko gizonezkoa kartzelaratzea erabaki zuen; 19 urteko gaztea aske utzi zuen.

Ertzaintzaren esanetan, otsailaren 6an egindako lapurretan 874.000 euroko balioa duten zor-agiriak, eskudirua eta enpresako telefono mugikor bat hartu zituzten. "Lapurtutako gauzak

segituan eskualdatu edo negoziatu zitezkeen merkataritza tresnak zirenez, nabarmen handitzen zuten kalte ekonomikoaren larritasuna eta lapurtutakoaren iruzurrezko zirkulazio arriskua", azaldu dute Ertzaintzaren iturriek. Hain zuzen ere, Durango-ko ertzain etxean ikertu dute kasua. Ikerketak zabalik jarraitzen du. Ertzaintzak zehaztu du 97.000 euro inguruko zor-agirik desagertuta jarraitzen dutela, eta atxilotuetako baten senidea den emakume bati ere eginbideak zabaldu dizkiote. "Ikerketa zabalik dago eta Ertzaintzak lanean jarraitzen du lapurtutako gauza guztiak berreskuratzeko", gaineratu dute.

Jan Alai txapelketak hanburgesak izango ditu ardatz

A. M. ZORNOTZA

Apirilaren 17tik maiatzaren 3ra bitartean, Jan Alai txapelketa gastronomikoaren edizio berri bat egingo dute. Orain hanburgesak izango dira protagonista, lehenengoz. Zornotzako taberna eta jatetxeek euren hanburgesa sorkuntzarik onenak eskainiko dituzte, eta herritarrek originaltasuna eta kalitatea epaituko dituzte gero. Parte hartu gura duten taberna eta jatetxeek martxoaren 6ra arte dute aukera izena emateko, janalai@amorebieta.eus helbide elektronikora mezu bat bidalita. "Lehiaketa honek hanburgesen sukaldaritza sormenean ipini du arreta, eta establezimenduei gonbit egingo die osagai berritzaileekin konbinazioak sortu ditzaten, herriko hanburgesarik zapoetsuena eta originalena sortzeko helburuz", azaldu du Zornotzako Udalak.

Aurretik, Jan Alai txapelketak pintxo lehiaketa formatua izan du. Parte hartzaileek sormenerako askatasuna izan dute konbinazio eta zapo berriak eskaintzeko, eta arrakasta handia izan duen ekimena izan da Zornotzan. Hanburgesenagaz ere antzeko harrera izatea gura dute antolatzaileek.

Urritxe ikastetxea aitzindari Euskadiko hezkuntzan

Urritxe BHI ikastetxea Euskadin Nazioarteko Batxilergoa eskainiko duen lehenengo ikastetxea izango da

A. M. ZORNOTZA

Datorren ikasturtetik aurrera, Zornotzako Urritxe ikastetxeak Nazioarteko Batxilergoaren Diploma emango du Gizarte Zientzien batxilergoko ikasketetan; Euskadiko hezkuntza sare publikoan hori eskainiko duen lehenengo zentroa izango dela azpimarratu dute. Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak "aurrerapausoa" dela nabarmendu du: "Udalerrriak kalitatezko hezkuntzaren aldeko apustua egiten jarraitzen du eta egitasmo honi eskerrak ikasleek Batxilergo Nazionaleko titulua zein Na-

zioarteko Batxilergoaren diploma lortu ditzakete, mundu osoan 4.500 unibertsitatek baino gehiagok onartzen duten titulazioa". Programa modu egokian ezartzea bermatzeko, ikastetxeko irakasleek prestakuntza sakona jaso dute Nazioarteko Batxilergoaren funtzionamenduari eta araudiei buruz, baita ikasgaietako eduki espezifikoaren inguruan ere; eta Suedia, Norvegia eta Finlandia bisitatu dituzte.

Bestalde, martxoaren 7an ateak irekitzeko jardunaldia egingo dute gai honetan interesa dutenentzat.



Urritxeko eta Jauraritzako ordezkariak.

Palestinan bizi duten egoera "kritikoa" dela salatu dute

Elorrio Palestinarekin plataformak deituta, manifestazioa egin dute "su eten faltsua" kritikatzeko



Manifestazioaren argazki bat.

A. M. ELORRIO

Palestinarekin bizi duten "egoera kritikoa" salatuzko, manifestazio jendetsu batek Elorrioko kale nagusiak zeharkatu zituen joan zen barikuan, otsailak 20. Elorrio Palestinarekin plataformak deituta, dozenaka elorriar irten ziren kalera. Palestinaren aldeko plataformak salatu duez, "su eten faltsuaren ondoren, erasoak ia egunerokoak" izan dira Gazako zerrendan. "Gazako etxebizitzaren %70 baino gehiago kaltetu edo suntsitu dira, eskola eta ospitalerik gehienekin batera, eta Israelgo armadak Gazako zerrendaren %60 okupatuta dauka", gaineratu dute. Manifestazio amaieran, "kalera irteteko beharra" dagoela azpimarratu zuten antolatzaileek, eta mobilizazioak egiten jarraituko dutela adierazi.

Berrizko Udalaren berri, Jauraritzaren 'Nire karpeta'-n

Herriarren Karpetaren eta Bizkaiko Komunikazioan Puntu Bakarraren integrazioa martxan da

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalak jakinarazi du beste urrats bat eman duela administrazio publikoa "hurbi-lagokoa, irisgarriagoa eta eraginkorragoa" izateko helburuagaz. Herriarren Karpetaren eta Bizkaiko Komunikazioen Puntu Bakarraren (PUC) arteko integrazioa martxan da; horrela, udalaren eta herriarren arteko hartu-emana eta informazio ofizialerako sarbidea errazagoa izango da. "Hemendik aurrera, Udalak edo Mankomunitateak jakinarazpen edo komunikazio

elektroniko bat igortzen duenean, edo pertsona batek jakinarazpen batera sartu eta hura jaso izanaren egiaztapena egiten duenean, ohiko egoitza elektronikoa ez ezik Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko 'Nire karpeta' atalean ere kontsultatu ahal izango da", azaldu du Berrizko Udalak. Neurri honegaz, herriarrek argiago jasoko dituzte komunikazioak, eta horretarako beharrezkoak diren iza-pideak murriztuko dituzte, udalak ohar berean adierazita-koaren arabera.

Miren Artetxek sortutako ipuinak gidatuta, bertso saio literarioa egingo dute Arrazolan

J.D. ATXONDO

Miren Artetxe bertsolari eta ikerlariak egonaldia egin zuen Atxondon iazko urte hasieran, herrian kokatuko zuen ipuin baterako inspirazio iturri legez. Urtebete geroago, bere sorkuntza atxondarrei aurkezteko ordua heldu da. Domekan, 18:30ean, 'Haize-lekua' izeneko bertso saio literarioa izango da Arrazolako Amillen. Miren Artetxe izango da gai-jartzailea, eta Oihana Bartra eta Alaia Martin arituko dira bertsotan. Artetxek berak sortutako *Haize-lekua* ipuineko pasarteak irakurriko ditu eta haiek erabiliko ditu bertsotarako gaiak proposatzeko.

"Ipuinak bi emakumeren arteko harremanaren istorioa kontatzen du", esan du Artetxek. "Bietako bat hil egiten da eta bestea zahar-etxe batean sartzen da. Han dagoen bitartean, hildako lagun horri hitz egiten dio eta zahar etxean gaur egun duen

bizimodua kontatzen dio, baina bere oroitzapenak ere kontatzen dizkio, berak nola bizi izan zuen harreman hori", gaineratu du idazleak.

Artetxe Udalbiltzako Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan etorri zen Atxondora. Proiektu honek euskal artisten sormena

eta Euskal Herriko kontakizunak uztartzea du helburu, euskaraz egindako artearen sormena eta hedapena bultzatzeko. Guztira, 30 sortzailek parte hartu dute. Proiektuak liburu batean jaso ditu egitasmoaren barruan sortutako lanak, eta *Haize-lekua* bilduma horretako parte da.



Miren Artetxe.

'Kimu' antzezlanak ikusiko dute antzerki tailerreko hurrengo irteeran



'Kimu' antzezlaneko irudi bat. MARIE DE JONGH

J.D. ATXONDO

Atxondoko antzerki tailerraren barruan, hilean irteera bat antolatzen dute inguruko herri bateko aretorea, bertan plazartuko duten antzezlan bat ikustera. Ekimena herriko gazte guztiei dago zabalik, gazteen artean antzerkirako zaletasuna bultzatzea delako helburua. Hurrengo

irteera martxoaren 8an izango da eta *Kimu* antzezlanak ikusiko dute Durangoko San Agustin kulturgunean. Marie de Jongh antzerki konpainiaren *Kimu* iazko abenduan estreinatu zuten eta harrezkero aretorik areto dabilta obra aurkeztzen. Natura eta imajinazioa uztartzen dituen antzezlanak dela diote sortzaileek.

Mañariko pilota txapelketa herrikoia asteburu honetan hasiko da

J.D. MAÑARIA

Asteburu honetan emango diote hasiera Mañariko pilota txapelketa herrikoari. Zapatuko partidua 17:00etan izango dira, eta domekakoak 11:00etan. Kafraga elkarteak eta Artatzagan pilota klubak antolatu dute txapelketa eta Mañariko eta inguruko herrietako zortzi bikotek jokatu dute bertan. Bikoteak

talde bitan banatuko dituzte, ligaxka formatuan jokatzeko. Finalerdiak maiatzaren izango dira, eta finala, urtero legez, ekainean, Albokan Rolla jaialdiaren barruan. Txapelketa herrikoia hirugarren aldia beteko du aurten. Orain hamarkada bi inguru ere jokatzeko zen eta antolatzaileek txapelketaren ohitura berreskuratu dute.



Txapelketa Mañariko pilotalekuan jokatu da.

Mañariko Errekondo jatetxean Errekomeri jaia antolatu dute



Errekondo jatetxea.

Mañariko Errekondo tabernan Errekomeri izeneko jaia antolatu dute zapatu honetarako. Janarian bestelako osagaiak eta entretenimendua uztartzen dituen ekimena izango da. 13:00etan Leire Vargas poetak eta Jaime Nieto musikariak poesia eta musika uztartuko dituzte *Bizi sintetikoak* izeneko emanaldian. Ondoren, 14:30ean, baba-jana egingo dute. Bazkalosteko bingoa Marik eta Ketok gidatuko dute, eta 18:00etan erromeria hasiko da. Ekimenerako tiketak Errekondon bertan eskuratu daitezke, 20 euroan.

Izurtzan garbigune mugikorra ipini dute martxoaren 10era bitartean



Izurtzako aparkalekuan kokatu dute garbigune mugikorra.

J.D. IZURTZA

Bizkaian herririk herri dabilen garbigune mugikorra Izurtzara heldu da. Aste honetako martitzenean ipini zuten aparkalekuan, eta martxoaren 10era bitartean egongo da bertan herritarren eskuragarri.

Edukiontzia ibiltari horrek etxeetan sortutako hondakin

mota asko bertara eramateko aukera eskaintzen du. Besteak beste, etxeko tresnak, sukaldeko tresnak, sakelako telefonoak, kableak, pinturak eta disolbatzaileak, aerosolak eta plastikozko kapsulak, tonerrak, pilak, CDak, DVDak eta erradiografiak eraman daitezke garbigune mugikorrera.

SCHMIDT

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK



Martxoaren 2tik 30era

%20KO DESKONTUA
sukalde eta altzarietan*

C.C. Eroski 48220 Abadiño · Tel.: 946 526 195 · www.homedesign.schmidt

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE

MARTXOKO ZOZKETAK



Arriola Dantza - Umeentzat
"Alai familiar"
(Lasala konpainia)
Martxoak 15



Arriola Antzerkia euskaraz
"Zerbait sartu zait begian"
(Imanol Epelde)
Martxoak 27



Zornotza Aretoa
Antzerkia euskaraz
Kolapsoa
(Jon Ander Urresti)
Martxoak 13



Zornotza Aretoa
Antzerkia euskaraz
R&J
(La Dramática Errante)
Martxoak 27



BASA take away jatetxeko
KMO haragidun eta ogi artisaudun
hanburgesa eta bi saltsadun patata
razioa opari. Ostiral eta larunbat
gauetan gozatzeko.



Xiberu taberna
(Zornotza) bi gosari bikoitz.

EGIN ZAITEZ **ANBOTOKIDE**
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



OTSAILEKO IRABAZLEAK

Xiberu Taberna
Aintzane Mendiola Larringan
Eli Aldecoa Azpitarte
Arriola, (Elorrio) La Senior de Larrua
Sonia Larrabide Izurieta
Zelai Hotela (Zumaia)
Iraide Azpitarte Ugartemendia

Abadiñoko Udalak Etxebizitza Plana lantzeko prozesua martxan ipini du



Mikel Urrutia alkatea, Edurne Maguregi alkateordea eta Ander Zangitu arkitektoa.

Aritz Maldonado ABADIÑO

Abadiñoko Udalak "erantzun integrala" eman gura dio etxebizitzaren inguruko kezka orokorrari. Gobernu taldeko kideek horren berri eman zuten astelehenean, eta eguaztenean herritarrei aurkeztu zieten. "Etxebizitzaren arloan dauden erronka eta beharrian nagusiei modu integralean, koor-

dinatuan eta errealistan erantzuteko helburuagaz, Etxebizitza Plana egiteko prozesua abiatu dugu", azaldu zuen Mikel Urrutia Abadiñoko alkatea.

Saioan Hiritik At kooperatibako Ander Zangitu arkitektoak parte hartu zuen eta erakundeak herritarren beharrianetara egokitu behar direla esan zuen. "Pla-

naren ardatza herritarrekin batera egindako azterketa izan behar da eta metabolismo demografikoaren azterketak agerian utzi du Abadiñok etxebizitza politika eguneratu eta bateratu baten beharra duela datozen urteetarako", azaldu zuen Zangituk. Urrutiak azaldutako datuen arabera, 2016-2024 urteen artean %17,2 igo da alokairuaren prezioa Abadiñon, eta abadiñarrek 640 euro ordaintzen dituzte batez beste; salmentari dagokionez, prezioak %23 igo dira. Gauzak horrela, etxebizitza plana sei hilabeteko epean garatzeko asmoa agertu zuten prentsaurrekoan, eta lau fase izango dituela iragarri zuten. "Sinetsita gaude hartu ditugun neurriek lagundu egin dezaketela gure herriko etxebizitza arazoa konpontzen, eta aurrera begira aldaketa hori sakontzen jarraitu gura dugu", gehitu zuen Edurne Maguregi Abadiñoko alkateordeak.

Francisco Turnesen 'Zurdaki' argazkia sanblasetako irabazlea

M.Z. ABADIÑO

Urtero lege, aurten ere San Blas-etako argazki lehiaketa egin da eta Francisco Turnes argazkilaria abadiñarraren *Zurdaki* izan da argazki irabazlea. Bigarren saria Aitor Gonzalez gernikarraren *Akerraren irrifarra* argazkiak irabazi du, eta herriko saria Monika Romeroen *Entre las brasas* argazkiak.



FRANCISCO TURNES

Ados klubaren binakako txapelketa, zapatuan, Mallabian

M.Z. MALLABIA

Mallabia I pilotalekuak hitzordu garrantzitsua hartuko du zapatu arratsaldean. Emakumei protagonismoa eman eta pilotaren munduan euren tokia egin gura dien Ados pilota klubaren binakako txapelketa jokatu da bertan. Txapelketa honek goi mailako pilotariak batzen ditu eta mallabitarrek

aukera paregabea izango dute pilotariok ikusteko.

Hori horrela, bihar, otsailak 28, honako partidua hauek jokatuko dituzte Mallabia I pilotalekuan: lehenengoan, Barrokak-Perez bikoteak Gomez-Agirre bikotearen aurka jokatuko du. Bigarren partiduan, Iturriagak eta Orbegozok Oskozen eta Arrastiaren aurka jokatuko dute. Jaialdia 17:00etan hasiko da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, sarrerak bost euro balioko ditu.

Mallabiko haurreskolako izen ematea, martxan

M.Z. MALLABIA

Mallabiko haurreskolak 2025-2026 ikasturteko azken izen emate epea zabaldu zuen atzo, otsailak 26, eta martxoaren 6ra bitartean egongo da zabalik. Haurreskolak jakinarazi duenez, izen emateak hasiera data bi izango ditu: bata apirilaren izango da, eta bestea maiatzaren. Apirilekoak hilaren lehenengo egunean hasiko dira, apirilaren 1ean, eta maiatzekoak maiatzaren 4an. Bestalde, 2026-2027 ikasturterako izen ematea apirilaren 13tik maiatzaren 4ra bitartean egongo da zabalik. Haurreskolara bertaratuta zein 943 17 20 03 zenbakira deituta eskuratu daiteke informazio gehiago.

Interesdunek haurreskolara bertaratu zein 943 17 20 03ra deitu dezakete

Berrizte lanak amaituta, Zaldibarko rokodromoak gaur zabalduko ditu ateak

Udalak boulder osoa berriztu du. Inaugurazio ekitaldian Ainhize Belar egongo da

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak rokodromoak berriztu du, eta araudiak agintzen dituen betekizunetara egokitu. Batetik, goitik behera berriztu dute eskalada guinea. 98 metro karratuko boulderra ipini dute hasiberrientzat zein eskalada-teknikan sakondu gura dutenentzat. Era berean, eskaladarako hainbat bide ipini dute, baita suspentsio-taula eta *Campus Board* deritzona ere. Bestetik, udalak azpiegiturako komunak berriztu ditu, eta aldagelak eta duxtak gehitu dizkie horiei. Zerbitzu horiek arku-tiroko kirolariek ere erabili ahal izango dituztela zehaztu dute. Lanek 190.000 euroko inbertsioa izan dute eta Bizkaiko Foru Aldundiak 41.397 euroko laguntza eskaini du.

Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkateak nabarmendu duenez,



Udalak araudiak eskatutako betekizunetara egokitu du boulderra. ZALDIBARKO UDALA

"azkenaldian asko hazi da eskalada praktikatzeko joera", eta horregaitik udalak "beharrerezkotzat" jo du rokodromoak berriztea. "Helburu bi" bete dituzte alkatearen esanetan: "Herriko eskalatzaileek mere-

zi duten moduko azpiegitura izatea eta azpiegitura horrek segurtasun irizpideak betetzea". Horrez gainera, Azpitartek nabarmendu du herriko kirol instalazioak hobetzen jarraituko duela.

Halaber, udalak jakinarazi du herritarrek asteburu honetatik aurrera erabili ahal izango dutela instalazioa. Aldez aurretik rokodromoan izena emanda zeudenek nahikoa izango dute udaletxetik pasatzea eta txartela aktibatzea. Erabiltzaile berriek udaletxetik pasatu, derrigorrezko inprimakia bete eta fidantza ordaindu beharko dute. Behin hori eginda, giltza jasoko dute rokodromoak erabili ahal izateko.

Rokodromo berriak bariku honetan zabalduko ditu ateak, otsailak 7, 18:00etan. Ekitaldian Ainhize Belar eskalatzaile atxondarrak parte hartuko du. Belar entzute handiko kirolaria da eskaladan, besteak beste 9A+ bidea eskalatzea lortu zuelako Baltzolako kobetan, 2024ko irailean. Zailtasun maila horretako bide bat igotzea lortu zuen bigarren emakume euskalduna izan zen, Josune Bereziarturen ondoren. Urtebete lehenago, Begi Puntuan bidea kateatu zuen Etxaurin (Nafarroa), 9A zailtasuneko bidea. Hamazazpi urteaz lortu zuen, eta bera izan zen bide hori lotzea lortu zuen lehenengo emakumea. Euskal Herriko eskalatzaile onenen artean kokatzea lortu zuen.

Iurretako XXIII. Literatur Lehiaketa martxan da



lazo sarituen argazki bat. UDALA

A. B. IURRETA

Iurretako Literatur Lehiaketak 23. edizioa du aurtengoa eta dagoeneko zabalik dago bertan izena emateko epea. Sormen lanak martxoaren 7ra arte aurkeztu daitezke, Herritarren Arretarako Zerbitzuan eta udalaren webgunean. Udalak eta Herri Bibliotekak antolatzen dute ekimena, Maiztegi herri eskolagaz eta Juan Orobiogoitia institutuagaz batera, haur, gazte eta helduen artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz. Ekimenak erantzun ona izaten du urtero; iaz, 240 sormen lan aurkeztu zituzten.

Otxandion laguntzak bideratuko dituzte negozio berriak zabaltzeko

A.B. OTXANDIO

Udalak herriko jarduera ekonomikoa bultzatu eta tokiko merkataritza indartu gura du, eta, helburu horregaz, diru laguntza deialdia abiatu du komertzio eta negozio berriak zabaltzeko. Lokal komertzialen alokairu gastuei aurre egiten lagunduko du.

Oinarrizko komertzioen kasuan, alokairuaren kostu osoa-

ri aurre egingo zaio lehenengo urte bietan. Zehaztu dutenez, udalak hilean 400 euro emango ditu gehienez lokal bakoitzeko, "baldin eta alokairuaren hileko zenbatekoa 650 eurotik beherakoa bada". Bestelako komertzio eta negozioen kasuan, udalak alokairuaren erdiagaz lagunduko du, urte bian; udalak 200 euro emango ditu hilean, gehienez.



Otxandioko herrigunea.

14 taldek eta 60 kirolarik parte hartuko dute Garaiko errelebokako duatloian



Kirolariak, iaz, Garaiko taldekako duatloian.

Ekaitz Herrera GARAI

Zapatu honetan taldekako duatloi proba jokatu da Garain. 14 taldek eta 60 kirolarik neurtuko dituzte indarrak herriko kale eta bideetan. Gizonezkoen kategorian bost taldek parte hartuko dute, hiru talde arituko dira emakumeen kategorian,

bost talde kategorian mistoan eta bakarra kategorian zabalean. Eskualdeko Mugarra triatloi taldeak ez dio hutsik egingo hitzorduari. Klubak talde ordezkariak izango ditu gizonezkoen eta emakumeen kategorian, eta baita modalitate mistoan ere. Indarpark taldea ere lehian ibili-

ko da. Klub horretako kirolariek federatu bakoien kategorian parte hartuko dute. Bestalde, 12 kadete ere lehiatuko dira zapa-tuan.

Faboritoei dagokienez, aurpegi ezagunak egongo dira Garaiko irteera lerroan. Garazi Alzola bertan egongo da, iaz emakumezko kadeteetan irabazle izan zena. Eta gizonezkoen kategorian garaile izandako Garraitz klubeko kideak ere taldekako duatloian lehiatuko dira. Kontrara, iazko parte hartzaileetarikoz batzuk, Galdakaoko Mozoilo triatloi taldea eta Getxoko Peñota taldea, ez dira Garain izango.

Proba 15:00etan hasiko da, eta, aurreikuspenen arabera, 18:00etan egingo dute sari banaketa. Kirol ekitaldiak eragina izango du herriko trafikoan. Garaiko erdigunea itxita egongo da 14:30etik 17:30era bitartean. Horrez gainera, Goiuriarako bidean ere mozketak egongo dira.

ANBOTO diseinu berriagaz dator

25. urteurrenaren harira, ANBOTOren paperezko aleak diseinu berria estreinatu du. Hartara, Durangaldeko protagonistei garrantzi handiagoa emango zaie, irudi zabalagoaren bitartez, besteak beste. Honegaz, urteurreneko ospakizun ekitaldiak martxan hasiko dira. ANBOTOk azaroaren 9an beteko du mende laurdena.



Eider Alberdi diseinatzailea, maketa berriagaz lanean

DURANGALDEA ASTEON

Errigorak Orburutxo eta Zainzuriñe aurkeztu ditu KORRIKArako

ERRIGORA Errigorak joko bat proposatu du Korrikaren edizio berrirako. Hain zuzen ere, Orburutxo eta Zainzuriñe pertsonaiak aurkeztu dituzte, eta lasterketako kilometroren batean identifikatzen dituztenek sariak irabazi ahal izango dituzte.



Orburutxo eta Zainzuriñe aurkeztu dituzte

Txintxirriko irakasleek irabazi dute Inauterietako argazki lehiaketa

ELORRIO Beste urte batez, lehia estua egon da ANBOTOk antolatu duen Inauterietako Argazki Lehiaketan. Jasotako argazki guztien artean, Elorrioko Txintxirri Ikastolako irakasleen argazkiak jaso du botorik gehien, 60. Irabazleek otzara eder bat jasoko dute.



Argazki irabazlea

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /
/ Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN
Kanpotik etorritakoak



MARKEL LARRUSKAIN
EH BILDU

Eskuin muturra badatorrela eta, kezka adierazi dugu herritar eta mugimendu politiko askok. Hala ere, bisitan etortzen diren faxistek baino, gure artean hedatu daitezkeen balioek arduratzen naute gehiago.

Segurtasuna, delinkuentzia eta immigrazioa, hau da gaia eta hau da markoa. Honetaz hitz egin behar dugula erabaki du eskuin muturrak, eta batek baino gehiagok marko hori ontzat eman du, Durangoko EAJk, adibidez. Durangon egiten diren delituetan, delitugileen datuak ematerakoan, bertakoa den edo ez adieraziko dute, hau da, espainiar nazionalitatea duten edo ez. Lerro haueetan azalpenetan luzatzeko aukerarik ez dudan arren, horrelako erabakiek gure herrikide batzuen kriminalizazioa eta xenofobia dakarte aditu guztien arabera. Durangoko Udalak emango du datua, baina gobernuko bazkideetako bat, PSE, ez dago ados eta erabaki honetatik kanpo kokatu da. Dena dela, elkarrekin gobernatzen jarraituko dute, noski.

Durangon, zorionez, VOX alderdia ez zen hauteskundeetara aurkeztu, baina, zoritxarrez, bere bozkak PPri eman eta EAJ-PSE gobernua babesteko hartu zuten erabaki hura. Orain, berriz, aurkeztu ez ziren horiek ezarritako markoa hedatzen ari da eta eragina du udalak hartzen dituen erabakietan, gizarte kohesioa eta pertsonen arteko berdintasuna arriskuan jarritz. Aurrean izango gaituzue.



ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua



anboto

MARTXOAK 8



Otsailak 28 Larunbata
17:00 Herriko frontoian
Emakumeen Erakundeak gaita txapelketa.
Sarrera 5€
Antolatzailea: Urdia eta Ados Plaza

Martxoak 1 Igandea
16: Emakumeen batzarra
Sarrera "Urdia" Donostia
Autobus erabilera
- 8:30 pertsona ikasle Donostia
- 11:30 ikasle Donostia
Antolatzailea: Urdia (Benditsen Kontsekoa)

12:00 Kontzejuzarrean
Emakumeen auzolanean (Nafarroa Garaia)
Antolatzailea: Nafarroa Emakume alkartea

12:30 Kontzejuzarrean
Bideoa: "La boda de Rosa"
Antolatzailea: Nafarroa Emakume alkartea

Martxoak 1etik 15era
Kontzejuzarrean
Pintura: emakumeak irratia de una mujer polizina.
Antolatzailea: Nafarroa Emakume alkartea

Martxoak 6 Ostirala
19:00 Kontzejuzarrean
Emakumeen osasun eskola:
Calculus, kardioakrobazia, miki-konkordak
eta miki-gimnasia
Antolatzailea: Nafarroa Emakume alkartea

Martxoak 8 Igandea
12:15 **KONTZEJUZARREAN**
Elkarrizketak eta Auzolanean Irriburuzaren ikusketak
Antolatzailea: Urdia (Benditsen Kontsekoa)
12:30, **Kontzejuzarrean**
Kloren ikusketak "In descendit"
(Inventariat eta gaita)
Antolatzailea: Urdia (Benditsen Kontsekoa)

Martxoak 15 Igandea
12:30 Kontzejuzarrean
Emakumeen osasun eskola: Menopausa
verus andropausa / menopausa
Antolatzailea: Nafarroa Emakume alkartea

Martxoak 20 Ostirala
19:00, Herriko frontoian
EHAE Emakumeen Comedia Paralela (Ere txapelketa finala)
Antolatzailea: Urdia eta Euzkoako Euzko Plaza Federakuntza

Martxoak 21 Larunbata
9:00, Herriko frontoian
Frontoia txapelketa irratia
Antolatzailea: A.D. Mallabia F.E.
"OKARRA: Eskola ikasle bideratze, emakumeak diran
emakumeak irratia diran eta martxoaren 8er, berri eta
"San Buzgai" egongo dira Kontzejuzarrean

Martxoak 8
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA



**BERRIZKO
EKITALDIAK
MARTXOA**

8 IGANDEA
Mobilizazioa
**EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO
EGUNA**
9:00 Olakueta Plaza

Zinema
LA CHICA ZURDA
19:00 Kultur Etxea





"Marraztea 'femeninotzat' hartu izan da eta 'zientzia gogorra' gizonentzat uzten zen"

VEGA ASENSIO HERRERO BIOLOGIAN DOKTOREA ETA ILUSTRATZAILE ZIENTIFIKOA

Biologoa izatetik ilustratzaile zientifikoa izatera igaro zen, amatasunak eta genero arrakalak markatutako bidean; erreferente izan gura du hurrengo belaunaldientzat

Joseba Derteano DURANGO

Vega Asensiok (Durango, Abadiñon bizi da, 1978) biologiako irakasle lana utzi eta amatasunari lehentasuna ematea erabaki zuen bere bizitzako une batean. Aldaketa horrek ilustrazio zientifikoaren atea zabaltu zion, edo, hobeto esanda, berak zabaldu zuen atea. Gaur egun Norarte Visual Science enpresan dabil lanean. Ilustrazio zientifikoaren bitartez, zientzia komunikatzeko modu berriak eraiki ditu.

Zelan ezagutu zenuen ilustrazio zientifikoaren mundua?

Nik beti marraztu izan dut, beti gustatu izan zait marraztea. Gainera, oso irakasle maitagarria izan nuen, Jaime Vicario durangarra. Hainbat urtean ikasi nuen beragaz. Berak erakutsi zidan zelan ikusi, zelan begiratu, marrazteko. Hobby bat zen. Gero, masterra egitea mugarri bat izan zen niretzat. Hau da, orduan konturatu nintzen ilustrazio zientifikoa existitzen zela. Herpetologia maisua taxonomoa zen. Klasean musker desberdin biren irudiak ipini zizkigun eta esan zigun: "Igartzen duzue ilustratzailearen lana?". Orduan jabetu nintzen ilustrazio haien atzean pertsona bat zegoela. Xehetasun haiek guztiak ikusita, harrituta geratu nintzen. Irakasle hark kapitulu batzuk idatzi behar zituen liburu batarako, eta haietarako ilustrazioak egitea eskaini zidan. Hainbat fosil, dinosauro... marraztu nion. Horixe izan zen nire lehenengo lana. Apurka geroago eta interes handiagoa nuen diseinu grafikoagazko, datuen bistaratzea... azken batean, hori ere bada ilustrazioa: zelan ilustratzen dituzun datuak.

Zelan bihurtu zen ilustrazio zientifikoa zure ogibide?

Nire asmoa *postdoc* bat eskatzea zen, Cardiffen, baina ez zidaten beka eman. Kontua atzeratzen zebilen, denbora aurrera zihoan eta familia izan gura genuen. Orduan, senarrak eta biok familiaren aldeko apustua egitea erabaki genuen. Tesia zazpi hilabeteko haurdun nengoela irakurri nuen. Umea izan eta gero, Euskal Herriko Unibertsitatean biologia zelularreko klaseak ematera bueltatzea zen nire asmoa. Oso gustura nengoan lantaldean, ikerketa egiten. Baina umea etorri zen eta ezin izan nintzen bueltatu.

Zergaitik ez zinen bueltatu?

Zientzia oso exigentea da eta nik ere horrela hartzen dut. Ikusten nuen ezin nintzela bueltatu nik gura nuen moduan. Gainera, kontziliazioaren arloan oraindino ere badago zer hobetu unibertsitatean, baina garai hartan ikusten zen exigentzia osoan bueltatu behar nuela. Jakina, bateratzea lortu duen ama asko dago unibertsitatean, bazeuden nire garaian ere, baina ni ez nintzen gai izan. Egia esanda, beste pasio hori ere baneukan, ilustrazio zientifikoarena, oso ondo uztartu zitekeena amatasunagaz. Azken batean, etxean zaude eta gauzak ahal duzun neurrian egiten dituzu. Orduan, Norarte Visual Science, diseinu grafiko zientifikoan eta ilustrazio zientifikoan espezialista den enpresa sortu nuen.

Zeintzuk izan ziren abentura berri honetako erronka nagusiak?

"Nire lana eta nire figura hurrengo belaunaldientzat erreferente izaten ahaleginduko naiz"

Erronka asko zegoen. Norarte izenak ere horixe adierazten zuen: "Noraino helduko naiz ni honegaz?". Zoramenaren zen; hau da, ez nuen ilustratzaile zientifikorik ezagutzen. Mundu honetan ez nekien askorik, baina gogotsu nengoan, aurrera egiteko determinazioagaz. Ilustratzaile zientifikoaren beharrezaz bazegoela ikusten nuen. Unibertsitatean zertan nenbilen esaten nuenean, "Zer da hori?" galdetzen zidaten. Izan ere, zientzialariak hain gaude ohituta dena guk egitera ze, ez zekitela kanpoan bazegoela jendea lagundu ahal ziena.

Zelan hezi zenuen zeure burua jardunbide berrirako?

Erreferente bat ezagutzea zen lehenengo eginbeharrekoa, eta, inor izatekotan, Carles Puche katalana da erreferente nagusia estatuan. Bere ikastaro batera joan nintzen, Valentziara, eta han ezagutu nuen. Beragaz egoitea garrantzitsua izan zen, mundu hau zelan ikusten zuen jakiteko. Izan ere, natura, marrazketa eta zientzia gustuko dituen jende asko dago, baina ilustrazio zientifikoak diziplina horiek gorputz berri batean artikulatzea eskatzen du, hau da, lan transbertsala da.

Zientzia utzi eta amatasuna erdigurean jartzeko hautua egin zenuen, genero-arrakalak bultzatuta. Orain, ilustratzaile zientifiko autonomo lege, mundu horretan ere egiturazko oztupo berdina aurkitu dituzu?

Gai hau oso sakona da eta hurbiletik hasi gura dut. Ilustrazio zientifikoan nire erreferenteak bilatzen hasi nintzenean, izen guztiak gizonenak ziren. Euskal Herrian Inaki Zorrakin (Santurtzikoa baina Elorrioren bizi zena, 1961-2004), Angel Dominguez (hura ere hilda dago), Conrado



Vega Asensio Ilustratzaile Mediko eta Zientifikoaren Europako Elkartearen Espainiako ordezkaria ere bada. THE BADASS PROJECT

Tejado edo Fernando Baptista izan ditugu; ezagutu nuen lehenengo emakumea, Beatriz Alonso, nire adintsukoa da. Espainiako estatuan ere izen handiak gizonenak dira: Puchet bera, edo Mauricio Antón eta Eduardo Saiz. Salbuespen bakarra Marta Chirino (Madril, 1963) da, eta bitxia da: berak lortu du gizonen lortu ez duten The Royal Horticultural Society-ko urrezko domina. Beste emakume guztiek nire adina dute edo gazteagoak dira.

Ez dago emakumerik, baina ez egon ez delako, ezkutatu egin dituztelako baino. Historian zehar emakume asko egon da, garai guztietan; besteak beste, Maria Sibylla Merian (Alemania, 1647-1717), Mary Anning (Britania Handia, 1799-1847), Beatrix Potter (Britania Handia, 1866-1943), Paula Millán Alose (Madril, 1899-1979) eta Marie Tharp (AEB, 1920-2006)... baina ikeritzaileei eskerrak ezagutzen ditugu orain, historia liburuek baztertu egin zituztelako. Askok pseudonimoa erabiltzen zuten, beste batzuk ezkondu eta lan egiteari uko egin zioten.

Gaur egun zein da joera?

Gaur egun paradoxa bat bizi dugu. Nik koordinatu dudan masterrean, azken zazpi promozioetan igaro diren ikasleen %81 emakumeak dira. Zergaitik? Lanbide sesgatua delako. Marraztea 'femeninotzat' hartu izan da beti, eta, aldi berean, 'zientzia gogorra' gizonentzat uzten zen. Esango nuke horregaitik

gizonezko gutxiagok hautatzen dutela ilustrazio zientifikoaren bidea.

Baina begira zer gertatzen den: irakasleak aukeratzerakoan, sekulako ahalegina egiten dugu parekidetasuna lortzeko, baina askotan ez dugu lortzen, eta gizonak ekartzen jarraitzen dugu. Zergaitik? Gu geu ere egoera honen preso gaudelako: gaur egun 20-30 urteko esperientzia duten profesionalak gizonak dira, haiek izan dutelako bide hori egiteko aukera. Emakumeok berriro ere bidean galdu gara, amatasunagaitik edo prekaritateagaitik, eta arrakasta lortzen dutenak gizonezkoak dira.

Zelan baloratzen duzu orain arte egin duzun bidea?

Zientzia utzi eta ilustraziora salto egin nuenean, genero-alborapen horren biktima izan nintzen. Harro nago egiten duanaz: zientzia ikusgarri egiten dut, dibulgatzaileei laguntzen diet, eta politikariei erabakiak hartzen laguntzen diet zientzia hobeto ulertarazita. Sekulako masterra koordinatu dut, Espainiako estatuan inoiz parekorik izan ez duena, eta pertsona askori leiho berri bat zabaldu diet.

Nire harea-alea ipini dut mundu honetan, baina nire konpromisoa finkoa da orain: hemen jarraituko dut eta nire lana eta nire figura hurrengo belaunaldientzat erreferente izan dadin ahaleginduko naiz, esperientzia duten beste irakasle emakumeena legez, datozen belaunaldien

irakasleak gizonezkoak bakarrik izan ez daitezzen. Hona heldu naiz gizarte hau herren dagoe-lako, eta bidea berdintzen aha-leginduko naiz.

Aitzindaria izan zara ilustrazio zientifikoko masterra sortzen. Zelan sortu zen ideia?

Lagun ikertzaile batek gomen-datuta, Fernando Baptistaren berbaldi batera joan nintzen. Sekulako ilustratzaile zientifikoa da, National Geographicentzat lan egiten duena. Ez nekien nor zen, eta beste askok ere ez. Beragaz berbaldi bat egitea bururatu zitzaidan. EHUrak jo nuen eta baietz esan zidaten. Hitzaldia arrakastatsua izan zen eta aretoa bete egin zen. Zientzia adarreko zein Arte Ederretako jendea batu zen eta Fernando Baptistaren bitartez ilustrazio zientifikoa ate handitik sartu zen unibertsitatera. Gerora, masterraren ideia proposatu eta baietz esan zidaten. Jende askoren lanari eskerrak irten zen aurrera. 2017tik 2025era iraun zuen eta 100 bat ikaslek parte hartu dute, guztira. Gaur egun ilustratzaile zientifiko profesionalak direnak irten dira masterretik. Oso harro gaude. Uste dugu oso formakuntza ona eman dugula.

Durangaldeko Artisten Elkarteko presidentea ere bazara.

Bai. Lantalde ederra dugu eta gustura nabil. Herriarentzat gauza on asko egiten duen elkarte da: erakusketak, lehiaketak, umeei begirako ekintzak eta abar.



Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

MARTXOAK 7

ZAPATUA

12:30 Poteoa trikitilariekin.

Plazan hasita.

14:00 Bazkaria (*), kultur etxean. Ondoren, bingoa.

18:30 Karropoteoa.

MARTXOAK 8

DOMEKA

13:00 Enkartelada. Plazan.

* Izen-ematea: Otsailaren 25era arte, udaletxean (20 euro). Abisatu alergiarik baduzu edo menu begetarianoa nahi izanez gero.

Faxismoaren aurrean, Elorriko feminismoa tinko!

M8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

M5

11:00 Emakumeentzako bisita gidatua: "Kaleetarrak" (Turismo Bulegoan)

M7

8:30 Emakumeentzako mendi martxa plazaetik, Urkiolan bazkaria.

berdintasuna@elormio.eus / 946 57 05 09

22:30

Ateneon, pintxada feminista (DJ): "Nuestros derechos, nuestros cuerpos. Resistiendo desde el baile y el goce". Emi Larrendo DJ.

M8

13:00 Manifestazioa plazaetik

13:30 Mokuia plazan

M13

17:00 Ipuin kontalaria liburutegian (+ 4 urte) Maite Franco: "Filomena Musumeci Enne".

M2-14

* Liburutegia Feminismoa sustatzen duten eta emakume idazleen liburuak guneak.

MARTXOAN ZEHAIR | EN MARZO

* Kiroldegia Emakumeentzako kiroldegiko ikastaroak doan.

16:00-17:00 Ostegunetan doako indar entrenamendua.

Izen ematea: 946821027

* Arriola Antzokian Kultur arloko Elorriko emakume sortzaileak bidea.

20:00 Zinea M7-8-9: Si pudiera te daría una patada M14-15-16: La tarta del presidente M21-22-23: Sorry, baby M28-29-30: La hija pequeña pequeña

Antzerkia M13: Orgullo de mujer. Compañía Malvaloca



"Adineko emakumeei zer egin behar duten esaten diegu, baina ez diegu entzuten"

IRATXE HERRERO ZARATE GERONTOKRIMINOLOGOA

Indarkeria matxistaren biktimak emakume gazteak bakarrik diren aurreiritzia apurtzearen garrantzia nabarmendu du Herrerok

Aritz Maldonado DURANGO

Iratxe Herrerok adineko emakumeek sufritzen duten indarkeria matxistari buruzko berbaldia emango du Durangon martxoaren 26an; 17:30ean izango da.

Indarkeria matxistaren eztabaidan adineko emakumeak kanpoan gertatzen direla uste duzu? Hau da, zure ustez, baztertu egiten dira?

Historian zehar, bai indarkeria matxistari dagokionez, eta baita bestelako indarkeria motei dagokionez ere, ez ditugu ikusten adineko emakumeak. Kri-


minologiari dagokionez, biktimarik gazteenak izaten dira interesgarrienak, nerabeak eta emakumeak. Hortaz, arlo honetan baztertua gertatzen dira. Horrez gainera, gizartearen aldetik ere gauza bera gertatzen da. Komunikabideetan biktimarik gazteenak agertzen dira, agerikoenak direnak, eta imajinario kolektiboan ere gauza bera gertatzen da. Biktimaren irudia emakume gazte edo nerabeekin lotzen da. Beraz, nire ustez, hau adinkeria mota bat besterik ez da. Estereotipo asko

dugu eurei buruz, eta uste dugu adineko emakumeak tratatu txarren biktimak baino ez direla, eta ez dugu euren irudia bestelako indarkerietan ikusten, genero indarkerian zein sexu indarkerian, adibidez. Eta, ondorioz, bai, baztertu egiten ditugula esan daiteke.

Adineko emakumeek jasaten duten indarkeria matxistak badiu ezagutzea bereizgarri edo konkretu batzuk?

Bai. Biktima bereziak dira, bai adinagaitik eta baita adinagaz lotuta dagoen sozializazioagaitik

ere. Orokorrean, euren errealtatea ezkutukoagoa da. Gizartearen ez dira hain agerikoak, eta horrek ezkutatu egiten du euren errealtatea. Bestalde, sozializazioagaitik ez dute pentsatzen biktimak direnik. Eurentzat egoera hori normala da, normala dela uste dute, eta ez dute euren egoera kontatzen edo salatzen. Desberdintasun edo ezaugarri horiek oso ohikoak dira kasu hauetan, baina guk ez ditugu ikusten. Beraz, zer gertatzen da beste biktimekin konparatuta? Genero indarkeriaren kasu zehatz hauetan, emakumeengan, indarkeria oso kronifikatuta dago, eta osasun fisiko zein psikologikoa oso hondatuta dute. Horrez gainera, ohikoa da dependentzia ekonomikoa izatea, etxean lan egiten dutelako, eta, beraz, askoz gaxago dute etxetik alde egitea. Independentzia ekonomiko hori ez izatera, beste etxebizitza bat lortzeko edo bizitza euren kabuz egiteko aukera askoz ere gaxagoa da. Hori dela eta, gehienek bikote bizitzagaz jarraitzea erabakitzen dute. Normalean, horrela izaten da eurak edo euren senarrak hil arte. Beste biktimekin hau ez da gertatzen. Ho-



Iratxe Herrero Zarate.

Martxoak 5 Marzo

Adierazpen instituzionala

Declaración institucional

11:30 / Andragunea

Durangoko goi mailako kirolariek topaketa

Moderatzailea / Moderadora:

Eneritz Iturriagaetxebarria Mazaga

Txirrindulari profesional ohia

18:30 / Kurutzesantu Museoa

Martxoak 7

Bideokliparen grabazio murgiltzailea

Antolatzailea

Plateruena Kultur Aterpea – Rock Izar

18:30 / Plateruena

Martxoak 8

Manifestazioa

'Beste mundu bat feminismotik'

Frente a los sistemas de dominación:

lucha y organización

Antolatzailea

Durangoko Mugimendu Feminista

12:30 / Ezkurdiko plazatik irtengo da

Martxoak 12

Bertso saioa Izena duena bada

Antolatzailea

Medicus Mundi Bizkaia

18:30 / Durangoko Arte eta Historia Museoa

Martxoak 14

Zineforum feminista 'Adolescencia'

Philip Barantini zuzendaria. Moderatzailea

Estibaliz Linares Experta en sesgos de género

y ciberviolencias machistas. Antolatzailea ANDEREAk,

Durangoko Udaleko ANDRAGUNEArekin lankidetzan.

ANDRAGUNEA – Ayuntamiento de Durango

11:00-14:00 16:00-18:00 / Zugaza Zinema

Martxoak 15

XIX. LILAKROSA Martxa ibiltari eta herrikoia

12:00 / Lugar: Ezkurdiko Plaza

(Kamiseten salmenta 11:00etatik)

Laguntzailea

Ibaizabal Durango Eskubaloia Kirol Taldea

Martxoak 26

'Adineko Emakumeen aurkako indarkeria: egiturazkoa, ezkutukoa eta berezia'.

Iratxe Herrero Zarate

Gerontokrminologoa. Ikertzailea eta prestatzailea

17:30 / Kurutzesantu Museoa

Martxoak 28

Abesti feministen VIII. Lehiaketa

Finalisten Kontzertua

19:00 / Plateruena Kultur Aterpea

Martxoak
DURANGO
2026

"Denon
ardura da"





nenbestez, esandako ezaugarri horien ondorioz zaurgarritasun handiagoko egoeran daudela esan daiteke.

Ezaugarri horiek zaildu egiten dute indarkeria mota hau detektatzea.

Bai. Oso garrantzitsua da, eta kontuan hartu beharrekoa, kasu batzuetan biktimek eurek onartu egiten dituztela horiek guztiak. Bikote hartu-emanen eta familiar ezer ez esateko joera dute, isiltzeko joera, eta, ondorioz, emakume horiek normalizatu egiten dute egoera hori. Ez dute kontatzen, eta, beraz, ez dute salatzen, eta horrela ez da bate-erreza detektatzea. Arlo honetan lan egiten dugunok ere ez dugu argi izaten biktimak diren ala ez. Sarritan, urte askoan egoten dira horrelako egoeretan, eta guztiz normalizat hartzen dituzte horrelakoak. Egoera horiei gizartean dagoen adinkeria

"Baliabideak badaude egon, baina ez daude prest beharrian konkretu hauei erantzuteko"

gehituz gero, oraindino gatzagoa da detektatu ahal iatea. Beraz, nahiko gatz da kasu horiek sufritzen dituzten emakumeekin lan egitea.

Badago baliabiderik indarkeria matxista mota honi aurre egiteko?

Bai, gizartean badaude baliabideak edo errekurtoak, baina batzuetan ez daude prest emakume hauen beharrian konkretu edo bereziei erantzun egokia emateko. Izan ere, normalean ez ditugu ezagutzen euren lana eta euren beharrianak. Baliabide batzuk badaude egon, baina ez emakume hauek erabiltzeko moduan. Horrez gainera, badaude irtenbide batzuk sinpleak ez direnak. Berba egiterakoan, errazak diruditen konponbideak daude, baina gero oso gatz da horiek praktikan ipintzea. Horietariko bi aipatuko nituzke. Alde batetik, emakume horien errealitatea ezagutu behar da. Adibidez, zu egiten zabiltzana orain, nigaz gai honi buruz berba egitea, gero gai honi buruz idazteko. Hau oso ona da errealitate horiek ezagutarazteko. Adinkeria alde batera utzi eta euren egoerari buruz sentsibilizatzeko aukera ona da. Ikerketak

ere badaude, baita komunikabideetako kanpainak ere. Eta, kasu honetan, Durangon emango dudan hitzaldia. Bestalde, oso garrantzitsua da adineko emakumeekin lan profesionaletik harago ere lan egitea; oso garrantzitsua da euren sinesmen edo balioak ulertzea. Normalean, zer egiten dugu adinkeria dela eta? Adineko emakumeei zer egin behar duten esaten diegu, baina ez diegu entzuten ea zer gura duten edo zer behar duten. Horregaitik, oso garrantzitsua da euren prozesuan laguntzea eta euren espazio eta erritmoak errespetatzea. Horrez gainera, prozesu horietan emakumeen eta adinekoen elkarrekin duten garrantzia aipatu gura nuke; oso espazio egokiak dira haiek libre sentitzeko eta bizi duten errealitatea normala ez dela jakiteko.

Dena dela, azpimarratu gura nuke egoera aldatzen dabilela, poliki bada ere, eta hori ere islatu behar dela. Dena ez da izan behar kexa. Orain urte batzuk, Emakundek kanpaina bat egin zuen biktima hauek ere existitzen direla plazaratzeko, eta berbaldiak eta halako ekimenak ekarpen ona dira arazoa bistaratzeko.

M8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 6

18:00

"Bellas" laburmetraiaren emanaldia eta solasaldia.

Udal liburutegia.
Solasaldia euskaraz

21:30

Emakumeon afaria eta dantzaldia.

Olazar frontoian.
Tiketak 20€

MARTXOAK 8

13:00

Mobilizazioa.
Udaletxeko plazan.

MARTXOAK 14 ETA 21

11:00 - 13:00

Zoru pelbikoa lantzeko ikastaroa.

Izen ematea: 946 82 70 16
berdintasuna@zaldibar.eus
edo udaletxean.

Zaldibarko Udalak bat egiten du Mugimendu Feministak eta Emakumeen Elkarteek antolatutako ekitaldiekin.

berdintasuna@zaldibar.eus 94 682 70 16



Zaldibar
Elizateko Udala

PUBLIZITATEA

"Egitarauak elkartasuna bultzatu gura du, bakoitzaren errealitateak errespetatuta"

JON ARTABE BERDINTASUN ARLOKO ZINEGOTZIA**J.D. ZORNOTZA**

Zornotzako Udalak egitaraua zabaldu du aurten ere, Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta. Emakumeen eskubideak, aniztasuna eta ahalduntzea ardatz hartuta, adin eta jatorri desberdinetako herritarrengana ailegatu gura duen programa osatu dute, sentsibilizazioa eta parte-hartzea uztartuta. Jon Artabe Berdintasun arloko zinegotziak egitarauaren gaineko azalpenak eman ditu.

Zein da aurtengo Martxoaren 8ko egitarauaren ardatz nagusia? Zer nabarmenduko zenuke aurreko urteetako programazioekin alderatuta?

Aurtengo egitarauaren ardatza emakumeen eskubideen eta genero berdintasunaren aldeko konpromisoaren inguruan kokatzen da, emakumeek gizartean duten rola eta haien ahalduntzea lehenengo planoan ipinita. Programazioan emakumeen protagonismoa eta feminismoaren balioak indartzen dira, eta ikuspegi integrala eskaintzen da, hainbat arlotan, hala nola hezkuntzan, kulturen eta ekonomian,

emakumeen parte-hartzea bultzatuta. Egitarauan adin eta interes oso desberdinetako pertsonen zuzendutako jarduerak daude, umeei, nerabeei zein nagusiei zuzendutakoak. Jatorri desberdinetako emakumeengan ere ipiniko dugu begirada.

Zergaitik izan da garrantzitsua aniztasun hori lantzea eta islatzea?

Funtsezkoa izan da, emakumeen errealitateak eta bizi baldintzak oso anitzak direlako. Ume, nerabe eta helduek, eta jatorri desberdinetako emakumeek bizi dituzten erronkak eta dituzten beharrezkoak desberdinak dira. Hori dela eta, egitarauak herritar guztien elkartasuna bultzatu gura du, bakoitzaren errealitateak errespetatuta eta denek elkarregaz bat eginda.

Martxoaren 2ko Giza Liburutegiak ekimenak pertsona migratuen testigantzak lehen eskutik entzuteko aukera eskainiko du. Zergaitik da garrantzitsua horrelako ekimen bat antolatzea?

Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldian egin zen aurretik. Han, euskaraz berba egiten duten emakume atzerriarren testigantzak entzuteko aukera egon zen. Antolatutako ekimen

honek ere garrantzi handia du; izan ere, migratzaileen bizipenak zuzenean entzuteko bidea ematen du, eta horrek gizartean ulermen eta enpatia handiagoa sortzen laguntzen du. Ekimenak kulturen arteko zubiak eraikitzea errazten du, eta herritarren artean elkarbizitza eta integrazioa bultzatzea. Horrela, gizarte inklusiboago eta solidarioago bat eraikitzea lortzen da, desberdintasunak hobeto ulertuta eta gaindituta.

Emakume Artisanu eta Nekazarien Azokak 28. aldia egingo du Martxoaren 8an. Zenbat postu egongo dira eta zeren ingurukoak dira?

Guztira, hogeita postu egongo dira. Postuen artean askotariko eskaintza egongo da: alde batetik, elikagai eta nekazaritza produktuak, hala nola haragia, ogia, gozoak, pastelak, pateak eta ongailuak; eta bes-

"Marixelarrekin gizarte inklusiboago baten aldeko urratsak emateko bidea eman du"



Jon Artabe, Berdintasun arloko zinegotzia.

tetik, artisautza eta sormen produktuak; besteak beste, ehungintza, bitxiak, zeramika, dekorazioa eta osagarriak. Horrez gainera, Bidezko Merkataritzako postu bat eta jasangarritasunagaz loturiko beste bat ere izango dira, azoka anitza eta kalitatezkoa osatuta.

Greenpower herri zirkuitu bat izango dugu martxoaren 7an. Zer da Greenpower ekimena eta nondik ibiliko dira?

Ikasleek egindako auto elektrikoek lasterketa da, Zornotzan egiten den ekimen bat. Parte hartzaileak eurek diseinatu eta eraikitako ibilgailuekin lehiatzen dira. Aurtengoa hirugarren edizioa da eta Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute, emakumeen parte-hartzea azpimarratzeko. Martxoaren 7an, arratsaldean, parte hartzaileak Zelaieta parkean aurkeztu-

ko dira, eta, ondoren, lasterketa Ixerreko parkingean izango da; erakustaldiak ere egongo dira, bertako karpan.

Marixelarre sariketak bosgarren aldian egin du aurten. Zein da bost urte hauen balorazioa? Hasieran markatutako helburuak lortzen dabil?

Bosgarren edizio honeguz, helburuak bete egin direla baieztatu daiteke. Marixelarre sariak azken urteotan emakumeen ekarpena gizarteratu, haren balioa azpimarratu, eta emakumeen ahalduntzea eta ikusgarritasuna indartu du. Ekimenak emakumeen artean elkartasuna indartzea bultzatu du, aurreiritziak gaindituta eta berdintasunaren aldeko urratsak emanda. Horrek gizarte inklusiboago baten aldeko urratsak ematea ekarri du eta eragin positiboa izan du udalerrian.

Hubble teleskopioaren 'ama'-ren bizitzan oinarritutako obra Zornotzan

Nexo Teatrok Zornotzan egingo duen antzezlanak Nancy Grace Roman astronomoaren bizitza errebasatzen du

J.D. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak Martxoaren 8aren harira antolatutako ekintza batzuek emakumeek zientziaren alorrean egindako ekarpenaren garrantzia nabarmentzea dute helburu. Esaterako, Nexo Teatrok Nancy Grace Roman (AEB, 1925-2018) astronomoaren inguruko antzezlanak ekarriko du Zornotza Aretora, martxoaren 6an, 20:00etan. Grace AEBetako espazio agentziako (NASA) lehenengo emakume exekutiboetarikoa izan zen. "Hubbleren ama" legez ezagutzen da askotan,

Hubble teleskopio espazialaren diseinuan izan zuen garrantzia gaitik. Gainera, etorkizunean espazioratuko duten teleskopio batek bere izena izango du.

Marixelarre sariak

Emakume zientzialariengan azpimarra egingo duen beste ekintza bat Marixelarre sariak dira. Berdintasunaren aldeko ibilbide eta ekimenak aitortzen dituen sari honek STEAM esparruan ikertzen dabilen herriko emakumeak omenduko ditu aurten. Baita ikerlari horiek



'Nancy Grace Roman' antzezlanak. NEXO TEATRO

sustatzeko STEAM gaiak ematen dituzten herriko andereño eta irakasleak ere, eta esparru honetan ikasken eta lan egiten dabilen emakume zornotzarrak. Urteroko ohiturari eutsita, sariak emateko ekitaldia martxoaren

8an izango da, 13:00etan, Zubiondo parkean.

Antolatzaileek gogoratu duteenez, saridunen profila duten herriko emakumeek oraindino denbora dute euren izena Herriarren Arreta Zerbitzuan

(HAZ) emateko, martxoaren 8ko ekimenetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Horrez gainera, HAZera joanez gero, Rosalinda Incardonak saridunentzat sortutako lamina bereziak jasotzeko aukera dute.

"Medikuntza zientzia legez neutroa dela uste da eta ideia hori apurtu behar dugu"

AMAIA BACIGALUPE DE LA HERA OSASUN PUBLIKOKO DOKTOREA ETA EHU-KO IRAKASLEA

Aritz Maldonado IURRETA

Medikuntzan genero ikuspegia kontuan ez izateak akatsak eta atzerapenak eragin ditu gaixo dauden emakumeen diagnostikoak egiterakoan, Amaia Bacigalupe Osasun Publikoko doktore eta EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslearen esanetan. Iurretan berbaldia eman zuen otsailaren 10ean.

Medikuntzan gizonak eta emakumeak desberdin tratatzen dira?

Medikuntza instituzio sozial bat da, eta, gizartearen parte den neurrian, gizartearen balioak eta arauak barneratuta dauzka. Orduan, gizarte matxista eta patriarkal batean bizi bagara, medikuntza, zientzia legez ere, matxista eta patriarkala da. Gertatzen da medikuntza, zientzia legez, zezor neutroa eta objektiboa dela uste dugula, eta hori da apurtu behar duguna. Medikuntza, diziplina zientifiko legez eta praktika profesional legez, oso modu konkretu batean eraiki da historikoki, oso erro androzentriko argiak ditu. Medikuntza deitu zaion zientzia hori gizonezkoen gorputza, haien beharrianak eta haien arazo edo patologia azaltzeko moduak erdigunean ipinita eraiki zen. Horregaitik, gaur egun askotan gertatzen da ikasketa liburu zein medikuntza fakultateetan gizonen gorputzetan izaten diren manifestazio edo gaixotasunak lehenesten direla. Adibidez, bihotzekoaren kasuan, gizonezkoengan ohikoak direnak hartzen dira sintoma legez; emakumeengan agertzen direnak, kasu horietan errepikatu arren, modu atipikotzat hartzen dira. Kontzeptualki, gaixotasun batean medikuntzak zein sintomari ematen dion garrantzia eta zeini ez ikusten da horrela; horrek erakusten du erro androzentrikoak izan dituela identifikatzerakoan eta diagnostikatzerakoan. Ez bakarrik gaixotasun kardiobaskularretan, beste hainbat arlotan ere bai. Zelanbait esateko, medikuntza bere garapenean oso eraginkorra izan da iturburu fisiologikoa edo

fisikoa duten gaixotasunak analizatzeko, baina ez da hain eraginkorra izan mentalagoak edo psikosomatikoagoak direnak, minagaz erlazioatuta daudenak eta emakumeengan maizago izaten direnak aztertzeke.

Horrek eragina izango du.

Bihotzekoaren adibideagaz jarraituta, gizonezkoengan bihotzekoa bularreko minagaz lotzen da, mina gero ezkerreko besora irradiatzen da... ezaguna da. Emakumeengan ere gertatzen dira horrelakoak, baina ia beti gizonen kasuetan da. Emakumeen kasuan, sintoma asko atipiko edo inespezifiko legez hartzen da; adibidez, buruko mina, matrailekoa, zorabioak eta baita urdaileko mina ere. Eta antsietate arazo legez identifikatu dituzte. Bihotzeko bat gizartearen imajinarioan zelan irudikatzen dugun lotuta dago medikuntzak orain arte ulertu duen moduagaz. Ondorioz, emakumeok askoz ere beranduago, okerrago eta traketsago identifikatzen ditugu arazo horiek gure gorputzetan. Gero, ez da bakarrik guk beranduago errekonozitzen dugula sintomatologia hori, osasun profesionalek ere euren genero-alborapenak dituzte, eta horrek ere eragina du, jakina. Beste adibide interesgarri bat: zergaitik goaz emakumeok beranduago larrialdietara? Ez

"Generoak eta klaseak eragina dute aurreiritzietan eta praktika profesionaletan"

"Medikuntza gizonezkoen beharrianak erdigunean ipinita eraiki zen"



Amaia Bacigalupe.

bakarrik mina beranduago errekonozitzen dugulako, gure ingurua esku onetan uzteko arduraz dugulako ere. Beraz, emakume batentzat askoz gaxagoa da bat-bateko erabaki hori hartzea. Adibide klasikoak da bihotzekoarena, eta, datuen arabera, gizonezkoengan hiru bider gehiago gertatzen da, baina bihotzekoek emakumezko gehiago hiltzen dituzte.

Emakumeok daukagun karga mental horrek eragin handiagoa du oraindino ere emakumeen osasunean, gizonezkoenean baino. Eta hori ez da belaunaldi helduen kasuan bakarrik gertatzen, gazteagoen kasuan ere birsortzen da.

Berbaldietan ere ikusiko duzu hori. Sentsazio hutsak dira, baina bai. Geroago eta gauza gehiago dakigu, baina gauza asko dago egiteko oraindino. Ez da erraza. Profesionalen artean ere erresistentzia asko dago. Uste dute zientzia guztiz objektiboa, zientifiko eta neutrala dela, baina ulertzen hasi behar dute, beste hainbat arlotan legez, generoak eta klaseak eragina dutela aurreiritzietan eta praktika profesionaletan.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoan zehar Gantxilezko triangeluekin herria apaintzen!
Herriko zenbat elkartet elkarlanean egindako ekintza (Gaurko Ama Nagusien Elkarte, Berbalagun...)

Martxoak 2-3
11:00-12:00 / 15:30-17:00 / 17:00-18:30 Horma-irudi margoketa kolektiboa (Bidebarrieta kalean)

Martxoak 4
18:30 Emakumeak literaturan (Josune Muñoz eta Katixa Agirre) (Ibarretxe Kultur Etxean)

Martxoak 5
18:15 Irakurketa instituzionala (Ibarretxe Kultur Etxean)
18:30 "Landa eremuak emakumeak" mahai-ingurua (Ibarretxe Kultur Etxean)

Martxoak 7
14:00 Autobusa (Maspe kalea)
Ondoren... Bazkaria eta Oja

Martxoak 8
12:00 Manifestazioa eta irakurketa (Askondotik hasita)
14:00 Bazkaria autogestioatua (karpan)
Ondoren... Bakarriketa
18:00 Luncha (Nagusien zentruan)

Martxoak 9
18:00 "Memoria bizia, memoria kolektiboa" (Ibarretxe Kultur Etxean)

Martxoak 13
19:00 "Descosme las alas" antzerkia (Ibarretxe Kultur Etxean)
*Iurretako Mugimendu Feministak antolatuta

Okm
batzen gaituen distantzia

ESKURATU ANBOTOKIDEEK DITUZTEN **ABANTAILA GUZTIAK**

40 EURO ORDAINDUTA URTEAN, LORTU ABANTAILA HAUEK GUZTIAK



HILEROKO **ZOZKETA** BEREZIAK

Teknologia-gailuak, jaki-otarreak, ikuskizunetarako sarrerak eta askoz gehiago! 2025ean, 200 anbotokidek baino gehiagok jaso dute sari bat.



DESKONTUAK ANBOTOKO ZERBITZUETAN

Eskelak, iragarki sailkatuak,...



POLTSIKORAKO **ABANTAILAK**

Deskontuak Durangaldeko eta Euskal Herriko hainbat komertzio eta Euskoil gasolindegian.



ONURA FISKALAK


Errenta aitortpenean, Anbotorena lehentasunezko jarduera delako, **%45eko** hobaria.

anboto

anbotokide

Irudia: **Maidor Sanchez Goetxea**
Kode anbotokide: **7.023**

www.anboto.org
anbotokide@anboto.org
944 810 500



POLTSIKO RAKO ABAN TAI LAK

EGIN ZAITEZ
ANBOTOKIDE

946 816 558
DEITU ETA
EMAN IZENA!



BED'S

Momentuko deskontuaren
gainean %5eko deskontua.

EILEKE

PSIKOLOGIA, NEUROPSIKOLOGIA, LOGOPEDIA
ETA PSIKOMOTRIZITATEA
%15 eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

%10eko deskontua museoko eta planetarioko
sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen
sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

%10eko deskontua dendako produktu
guztietan.

HITZ LIBURU-DENDA

%10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

%15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

%50eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

%5eko deskontua eskola
eta bulego materialean.
%5eko deskontua musika,
opari eta liburuetan.

Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

Armazoizko lenteetan eta eguzkitako
betaurrekoetan %10eko deskontua.

LANDAKO OPTIKA

%15eko deskontua eguzkitako
betaurrekoetan, audiologian, ikusmen
urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

%15eko deskontua sasoian jartzeko
talaso zirkuituan. %10eko deskontua
osasun, lasaitasun eta edertasuneko
banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

%5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
%10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

%25eko deskontua garbiketa eta
erradiografietan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

%5eko deskontua 20 €-tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat
egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren
portzentajearen berri emateko. (Novaline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

%20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

Denda eta erakusketako produktuetan %10eko
deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

%5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
%10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

%25eko deskontua garbiketa eta
erradiografietan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan
3 zentimoko deskontua litroko.

ZELAI ALAI

Udalekuetan %10eko deskontua.

GUARDIAKO BOTIKAK	
OTSAILAK 27, BARIKUA	
09:00-09:00	
Navarro, Artekalea 6 - Durango	
Melero, San Pedro 31 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
OTSAILAK 28, ZAPATUA	
09:00-09:00	
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
MARTXOAK 1, DOMEKA	
09:00-09:00	
Bazan, Uribarri 5 - Durango	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 2, ASTELEHENA	
09:00-09:00	
De Diego, Intxaurreondo 22. - Durango	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
MARTXOAK 3, MARTITZENA	
09:00-09:00	
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
MARTXOAK 4, EGUAZTENA	
09:00-09:00	
Mugica, Andra Maria 9 - Durango	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
MARTXOAK 5, EGUENA	
09:00-09:00	
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion-agurra ipintzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali *agenda@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitetz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.



Zorionak, Ekai, domekan 7 urte egingo dituzu. Jaio zinean landatutako zuhaitz ondoan, biak gora! Musu potolo bat familiaren partez!



HAMABOSTEAN BEHIN, JASOTAKO ZORION-AGURREN ARTEAN **GOZATU GOZOTEGIKO TARTA BAT ZOTZ EGINGO DUGU**. ZOZKETAN PARTE HARTZEKO BIDALI KONTAKTURAKO DATUAK ZORION-AGURRAREKIN BATERA.

GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

661 401 400

Gozatu Gozotegia

gozatugozotegia



Zorionak lñaki (1053.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

OROIGARRIA

Anboto eskelak:

ESKELAK IPINTZEKO:
946 816 558 edo *anboto@anboto.org*

Modulu bateko Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean edo webgunean: **75 €** / Anbotokideentzat **65 €**

Bi modulotako Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean eta webgunean: **115 €** / Anbotokideentzat **105 €**



GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



EMAKUMEAK LITERATURAN

2026
MARTXOAK 4
MARZO
18:30

Hizkuntza - Idiomaz: euskara

IZEN-EMATEA:
94 481 3726
bibliotekari@urreta.eus

JOSUNE MUÑOZ

KATIXA AGIRRE

Antolatzailea: **Urreta**
Biblioteka: **URRETA**

Laguntzailea: **URRETA**





Durangaldeko
Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

*Durangaldeko OKm gida
erakusleho ezin hobe duzu
eskualdeko merkataritza
eta zerbitzuetan.*

*Jarri gurekin harremanetan konpromiso
barik 688 731 402 telefonoan*

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

www.anboto.org/gida



Woop-woop



KAROL SUAREZ
BORGES

“Zuen legeak hutsalak dira, benetako kriminalari begiratzera ez zaretelako ausartzen”, dio *Sound of da Police* kantak arraza-profilaren jarraikortasun historikoaz entzulea hezi birtartean. Gaia ez da literalki berdina, baina Durangok atxilotuen jatorria jakinaraziko duela irakurri dudanean, inkontzienteki, horixe kantatzen hasi naiz. Aipamena utzi nahi nizuen, ez baitago soberan noizbehinka soinu horren erritmora dantzatzea.

Portzieto, marko demokratikoei muzin eginda hartu da erabakia. Eskualdean ez genien ahotsik eman nahi izan eskui-neko alderdi espainolistei. Bertan bertoko ordezkari fina, akaso, ahaztuta; zaurgarriena zapaldu, fokua alendu, boterean jarraitu. Paradoxikoki, diskurtso ultren gorakada betean, zer eta gezur informatiboak saihesteko hartu da neurria.

Durangon (ez beste inon) atxilotuen jatorria aipatzeak ez du inolako segurtasun-justifikaziorik; kolektibo osoak estigmatizatu eta estereotipoak berresten ditu, arrazakeria eta xenofobia sendotuz. Atzerritar kopurua goraka doala, arau-hauste penalek behera egin dute nabarmen. Delituek ez dute nazionalitatearik, ez arrazarik, ez erlijiorik. Delituak prebenitzeko estrategiak hobetzeaz bagabiltza, delitu horiek gauzatzera eramaten duten zergatiei errepara diezaiegun.

"Herri osoak elkarregaz parte hartzen duen ekintzarik bakarrenetarikoa da tonbola"

ZURIÑE IRULEGI ONAINDIA ETA ANE MIREN ALBERDI URIZAR TONBOLAREN ANTOLATZAILEAK

Aitziber Basauri ZALDIBAR

Zaldibarren egutegian gorritz markatuta daude tonbola egunak. Lau hamarkadatik gora joan dira lehenengoz antolatu zutenetik, eta herriarren erantzuna ezin hobea da urterik urte. Halaxe nabarmendu dute antolatzaileetarik bik: Zuriñe Irulegik (Zaldibar, 1986) eta Ane Miren Alberdik (Zaldibar, 1984). Joan zen asteburuan egin zuten tonbolan 7.719 euro batu zituzten.

Zelan joan da aurtengo tonbola?

Zuriñe Irulegi: Itzel. Lehenengo egunetik jende asko etorri da, gazte zein heldu, eta domeka arratsalderako txartel guztiak salduta genituen. Pozarren gaude.

Ane Miren Alberdi: 2.000 sari inguru izaten ditugu eta ia denak banatu ditugu: eskuz egindako mahai-zapiak, panpinak, etxerako objektuak, askotariko poltsak, patineteak, Zaldibarren egindako marmelada... Gainera, saria lortzeko bigarren aukera ere egoten da amaieran. Aurten, bizikleta bat eta urdaiazpiko bi zozkatu ditugu.

Lehenengo tonbolako helburuak eta oraingoak aldatu egin dira? Elkartasuna ulertzeko modua aldatu egin da?

Z.I.: Ez. Zaldibarko hiru misiolariri laguntzeko helburuagaz sortu zen tonbola, eta helburu horregaz lan egin dugu urteetan. Javier Peña eta Javier Areitourtena hil eta gero, Mila Azpitarteri ematen diogu dirua. Aurten, Kolonbian eta Haitin garatzen dabilen proiektuetan



Zuriñe Irulegi eta Ane Miren Alberdi.

laguntzeko izango da. Aurretik, Limara, Perura eta Afrikara ere bidali izan dugu dirua. Orain urte bi Elikagaien Bankuari eman genion zati bat.

A.M.A.: Herriak elkartasun handia erakusten du, urterik urte parte hartzen du. Tonbola noiz zabalduko zain egoten da. **Zaldibarren errotuta dagoen ekimena da tonbola?**

Z.I.: Oso errotuta. Herri osoak elkarregaz parte hartzen duen ekintzarik bakarranetarikoa dela esango nuke.

A.M.A.: Hala da. Adin edo pen-



tsakera guztietako zaldibartarrak etortzen dira tonbolara asteburu horretan. Jendearen erantzuna izugarria da.

Zenbat lagun zabilatzate lanean ekimena aurrera ateratzeko?

Z.I.: 25 bat emakumek lan egiten dute tonbolarako materiala sortzen: mahai-zapiak, panpinak, askotariko gailuak gordetzeko poltsak. Batzuk josteko elkartzen dira, eta beste batzuek etxean egiten dute, euren kabuz. Bestalde, herriko eta inguruko komertzio eta enpresa txikietara ate joka joaten garenok osaturiko 10 bat lagunekin taldetxo dago. Laguntza eskatzera joaten gara, sariak lortzeko. Udalak ere laguntzen digu; dirua ematen digu, jostunei materiala erosteko.

Zaldibarko etxe guztietan egongo da tonbolan tokatutako zeozer.

Z.I.: Seguru! Ogirako edo umeei askaria eroateko poltsak...

A.M.A.: Seguruenik etxe gehienetan topatuko dugu tonbolako nezeserren bat edo arropak eskegitzeko pintzetarako poltsa. **Zein da egokitu daitekeen saririk bitxiarena?**

A.M.A.: Ez dakit! Kaktus txiki bat, adibidez.

Z.I.: Edo txakurren kakak batzeko poltsak. Josten dabilen emakumeek adin bat dute, baina beti ahalegintzen dira garaiari egokitutako sariak sortzen: ordenagailu eramangarria, tableta edo mugikorra gordetzeko zorroak, adibidez.

Hasi zarete hurrengo prestatzeko?

Z.I.: Jakina! Sariak josten dituzten emakumeak ez dira geratzen.

A.M.A.: Tonbolak ateak ixtean bazkaria egiten dugu, eta baten batek beti galdetzen du: 'Datorren urtean noiz egingo dugu?'. Gabonetan hasten gara dena lotzen.

Motzean

Tonbolan parte hartzea...

Z.I.: Elkartasuna da.

A.M.A.: Atsegingarria da.

Inoiz falta ez den saria?

Z.I.: Kaktusa.

A.M.A.: Mahai-zapia.

Urte hauetan tokatu zaizuen sari bat.

Z.I.: Haurdun nengoela jaka bat semearentzat.

A.M.A.: Mahai-zapi joko, sartu berri nintzen etxerako.

ATE IREKIAK

MARTXOAK 7

Gure eskaintza

Giza eta gizarte zientziak

Zientziak eta teknologia

ESKAINZA BERRIA

NAZIOARTEKO BATXILERGOA

www.urritze.eus

944 280 154

Urritxe auzunea z/g.

48340 Amorebieta